

JUAN LOPEZ DE URALDE

«Gobernuek
beldur handiagoa
diote benetako
paktuari aldaketa
klimatikoari
baino»



- **Internet** Pirateriaren kontrako legeak oinarrizko eskubideen gainetik
- **Paraguai** Sojaren inperioak 40 familia kanporatu ditu Itapua eskualdean
- **Frantziako eskualdeetako hauteskundeak** Abstentzioa nagusi
- **Dantza tradizionalak** XXI. mendean asmatuak
- **Amelia Barquin** «Etorkinak ez du arazo berririk ekarri euskararen auzira»



Euskal kulturaren transmisioa

Iritzi artikuluak

- Jone Miren Hernandez: Transmisioari, memoriari galdezka.
- Ane Larrinaga: Euskalgintza, sorkuntza intelektualerako eta euskal kulturgileen rolen eraikuntzarako gune.
- Mario Zubiaga: Suaviter in modo.
- Xabier Aierdi: Euskara eta kultur-transmisioaren mugak.
- Imanol Galfarsoro: Kultu(ra)ren kartografia(k).
- Andoni Eizaguirre: Kulturgintzaren logikak.

Elkarrizketa

- Julen Arexolaleiba: MUko Huheziko Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondoko koordinatzailea.

- 4 **Deabruaren abokatua: Conny Beyreuther.**
Aritz Galarraga.

Gaiak

- 16 **Paraguai. Sojak bota ditu etxetik.**
Olmo Calvo Rodríguez eta Sebastián Háchér.

Iritziak

- 20 **Gora Pro Nobis.** Asisko Urmeneta.
21 **Ttakun (h)errenka. Gezurrak sinesten.** José Luis Padrón.
22 **Itzal nazazue.** Alaitz Vives.
Ukabilak estuturik. Castillo Suarez.
23 **Dylanen abokatuak.** Gorka Urbizu.
Komisaldegirainokoa. Joxemari Ostolaza.
24 **Bertso berriak. Isiltasunari jarriak.** Uxue Alberdi.

Erdiko kaiera

- 29 **Mamacrea. Nahi bezalako teatro-karta.**
Álvaro Hilario Pérez de San Román.
31 **Diskoak.** Iker Barandiaran.
32 **Liburuak.** Saioa Ruiz Gonzalez.
33 **Denbora-pasak.** Ana Zambrano eta Kike Amonarriz.
34 **Ezpalak.** Jon Torner.
35 **Abarrak.** Unai Brea.
36 **Osasuna.** Jabier Agirre.
37 **Landareak.** Jakoba Errekondo.
38 **Denboraren makina.** Nagore Irazustabarrena.

Termometroa

- 39 **Amelia Barquin, HUHEZIko irakaslea: "Etorkinak ez du arazo berririk ekarri euskararen auzira".**
Miel A. Elustondo.
44 **Pentsioak. Banketxeak gizentzeko erreformak mahai gainean.** Daniel Udalaiz.
46 **Bero-beroan.** Juan Mari Arregi, Onintza Irureta eta Xabier Letona.
48 **Net Hurbil. Regis Debray, Villepin eta Haitiren 21.000 milioiak.** Pello Zubiria.

Azkena

- 50 **Hermana Ixabel.** Jose Ignazio Ansorena.

5 | Internet librea arriskuan | Gorka Bereziartua

AEBetan duela hamabi urte hasi ziren Internet erregulatzeko legeak zorrozten, copyright urraketen aitzakian. DMCA legea onartu zuten eta geroztik posible da web-gune bat ixtea epaileen beharrik gabe. Azkenaldian antzeko legeak bultzatzen ari dira mundu osoan: ACTA akordioa, Frantziako "Hadopi legea", Espainiako "Sinde legea"...



25 | Sorkuntza, dantza tradizionalaren zutabe Unai Brea

43 | Akitaniako bozen analisia Mikel Asurmendi

10 | Juan Lopez de Uralde | Sustrai Colina

Iazko abenduan, Kopenhageko estatu-buruen gailurrean egindako ekintzagatik kartzelan izan ostean, ezagun bihurtu da Greenpeace-ko Espainiako zuzendari nagusia. Politikarien, enpresen eta herritarron jarreraz mintzatu zaigu, mundu ekologiakoago baten bidean.



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Erredakzioa: Urko Apaolaza, Mikel Asurmendi, Gorka Bereziartua, Unai Brea, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Garbine Ubeda. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L. Argia.com: Lander Arbelaiz, Axier Lopez, Jon Torner.

Kudeatzailea: Berdaitz Goia. Salmenta Burua: Bego Zuza. Harpidetzak: Olatz Korta. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea. Azaleko argazkia: Dani Blanco.

 EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO KULTURA SAILA Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza diruz lagundua	 GIPUZKOA zurekin, aurrera	 euskaraz hai
 kutxa		



• DEABRUAREN ABOKATUA •

“Ez dago kimikarik, hilda dago argazkilaritza”

Conny Beyreuther | Paparatzia

Kliska eta kliska artean, utzi digu galderen bitartez
bera erretratatzeko.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Barkatu, baina gero eta meritu gutxiago duzue argazkilariek: a zer kamera puska ekarri duzun...

Jostailu polita, e? Bada, oraindik irakurtzeke daukat instrukzio liburua. Argazkia egiteko botoia aurkitzen badut, ondo goaz.

Edonor izan daiteke orain argazkilari, kamera digitalek akabatuko dute argazkilaritza.

Esaten dute jada hilda dagoela. Ez dago kimikarik, akabo istorioa. 1989an eraitsi zuten Berlingo harresia eta hil egin zen argazkilaritza, nahiz eta ikusteko dagoen bien arteko konexioa. Gora aro postfotografikoa!

Eta hori gutxi balitz, Photoshopa. Itsusiak ere guapo ateratzen dituzue!

Baina edertasuna ez al zegoen geure baitan? Zer egingo duzu, bestela, zure irudi idealizatuaren antza izateko? Kirurgia plastikoa? Edo etxean itxita geratu, Marlene Dietrichen egin zuen bezala?

Bidaia ere, bueltan argazkiak erakusteko bidaiatzen dugu eta!

Leku komunitatik atera eta azal azpian murgiltzen bazara, konpainia ona egingo dizu argazki kamera batek.

Erretratuak egiten dituzu zuk, batez ere. Zure esku dago erretratatuaren karrera profesionala...

Bai, atsegin dut erretratuak egitea, baina ez dut uste ezer dudarik nire eskuetan, ez bada argi arrastoren bat.

Humberto Rivas argazkilaria esana: “Erretratua beti da autoerretratu”.

Orain ulertzen dut zergatik agertzen den jendea hain guapo nire argazkietan! Txantxa alde batera utzita, nire ikuspuntutik baino ezin ditut egin argazkiak. Argazki objektiboagoa nahi baduzu *fotomatoi* kabina bat gomendatzen dizut.

Argazkiak dagoeneko ez ditu arimak lapurtzen, baina erretratatuak izan denaren arimarik ere ez du jasotzen.

Mundu guztiak ere ez du arima. Zer esango dizut zuri... Noren abokatua zara? Baina uste dut komunikaziorik gabe ez dagoela erretraturik.

Terry Richardson izan ezik, argazkilari gutxi agertzen zarete argazkietan. Argazkiaren krudeltasuna inork baino hobeto ezagutzen duzue...

Ez zaitez hain ezkorra izan, gizona! Nahiago dut pentsatu argazkia magia dela, laztan bat, errebelatu argi-iluna.

Aizu, mila hitzek baino gehiago balio omen du irudi batek, baina hemen ari gara gu, hitz eta pitz...

Zenbat daramatzagu? 500? Irudi erdia falta dugu orduan. ■

• ASTERO GAIA •

Internet

Bi klik eta akabo sareko askatasuna

Internet orain arte den bezala maite baduzu, hasi kezkatzen: azkenaldiko mugimenduak ikusirik, ematen du sarea katez eta giltzarraz lotu nahi dutela. Hadopi, ACTA, Ekonomia Jasangarriaren Lege Proiektua, sarearen neutraltasunaren kontrako mehatxuak...

GORKA BEREZIARTUA



BEHARBADA JAKIN NAHIKO DUZU horiei buruz zer edo zer gehiago, zure askatasuna baita jokoan dagoena. Kontua AEBetan hasi zen aspalditxo, eta azken bizpahiru urteetan lehorreratu da Europar.

1998an onartu zuten usamerikarren herrian “*Digital Millenium Copyright Act*” (DMCA) izeneko legea. Printzipioz egile eskubideen urraketaen kontra prestatu zuten, baina legeak zera ere debekatu zuen: eskubide horiek urra zitzaketen teknologiak sortu eta zabaltzea. DMCAk delitu bihurtu dizu, adibidez, era ondraduan erositako DVDko edukiak deskodetu eta kopiatzea, demagun, zure bideo aparailu eramangarrian ikusi nahi duzulako. Eta Interneten, webgunek salatzen erraztasun handiak eman dizkie copyrightarekin babestutako edukien jabeek: nahikoa da zure blogak babestutako materiala dagoen lekuren batera lotura egitea.

Sinesteko zaila. Baina galdetu Cryptome webguneko arduradunei. Aurtengo otsailean argitaratu dute Microsoften barne manual bat, azaltzen duena nola hitz egin behar duten enpresako langileek poliziarekin, ustezko gaizkileen datuak eskatzen dizkieten kasuetan. Dokumentuak agerian uzten du Microsoftek gure zenbat datu dauzkan –gauza jakin samarra, bestalde–; baina gaurko gaiarekin lotuta, problema handiena zera da: multinazional horrek, DMCA erabiliz, salatu egin zuela webgunea; eta lortu zuela Cryptome ixtea, inolako epaileren beharrik gabe. Ordu batzuk beranduago salaketa kendu eta berriz zabaltu zuten. Berandu: kristala baino gardenago ikusi baita legeak zertarako aukera eman dezakeen. Webguneak zentsuratzeko erreminta ezin hobea da.

Horixe bera azpimarratu du Electronic Frontier Foundation erakundeak. DMCAren 12. urteurrenean balantzea egin du eta gupida gutxi ukan du legearekin: adierazpen askatasuna eta ikerketa zientifikoa eragotzi dituela baieztatu du; arriskuan jarri duela legezkoa dena ere; eta berrikuntza eta konpetentzia eragotzi dituela.

ACTA: AEBetako legedia mundu osora

Baina zu lasai zaude. Azken finean, horiek


ACTA akordioak Internet estatu polizial bihurtu lezake, bidea libre uzten baitu Interneteko erabiltzaile ororen jarduerak espiatzeko, copyright urraketa saihesteko aitzakiarekin

yankien aferak dira. Edo... ziren? Entzun al duzu zerbait “*Anti-Counterfeiting Trade Agreement*” (ACTA) izeneko akordioari buruz? Ez, ez da harritzekoa. Orain dela gutxi arte isilpean eduki dute. Baina ezagutzeko modukoa da, mundu osoko 40 herrialde ari baitira horretaz eztabaidatzen, G8koak buru eta Europar Batasuna ere tartean dela. Eta, portzierto, inolako nazioarteko erakunde kontuan hartu gabe ari dira lanean, konspirazioen teoriak gustuko dituztenei bazka ederra emanez; baina, eta hau da garrantzitsuenak, horrelakoekin fidakaitz direnak ere larrituz.

Egitasmoaz dakigunarekin, belurtzeko arrazoiak badaudela dio, adibidez, Nate Anderson Ars Technica webguneko editoreak. Otsailean publikatutako artikuluan irakurri diogu: “Badirudi ACTA estrategia bat dela AEBetako DMCA mundu osora zabaltzeko”. Beste gauza batzen artean, nazioarteko akordio horrek Interneti galbahea jarri nahi dio, webgune batzuk ikusi ez ditzazun. Egile eskubideak errespetatzen ez badituzu, abisu bat bidaliko dizute; temetzen bazara, beste bat; eta hirugarren abisuarekin, Interneteko konexioa moztuko dizute. Interneteko zerbitzuen hornitzaileak ere saltsan sartu ditu ACTAk. Copyright-urratze baten berri jasotzen badute, beren zerbitzarietan dagoen edozein eduki ezabatu behar dute. Eta hori egingo dutela ziurtatzeko, enpresa horiek berak sartu dituzte susmagarrien zakuan: ACTAk ez ditu zuzenean jazarriko, baldin eta edukiak kentzeko konpromisoa hartzen badute copyright salaketak jasotzen dituztenean. Enpresak bihurtzen dira aizkora dantzatzen duten borrero.

Baina, nola jakin nor ari den copyrighta urratzen eta nor ez? Hor dago koska: ACTAk Internet estatu polizial bihurtu lezake, bidea libre uzten baitu mundu guztia-
ren jarduerak espiatzeko. Ez da guk esana, Peter Hustinxek baizik.

Hustinx Datu Babeserako Europako Ikuskaria da eta aurtengo otsailaren 22an hogeiorrialdeko adierazpena eman du argitara. Kexatu egin da, Europako Komisioak ez diolako akordioari buruz ezer galdetu. ACTAz, besteak beste, nabarmendu du hainbat praktika ezartzen dituela “oso erasoko-



Diru truke, webgune batzuek faborezko tratua

Alde guztietatik iragartzen diren neurri murriztaileez gain, azkenaldian asko hitz egin da sarearen neutraltasunari buruz –ingelesez “*network neutrality*”–, arriskuan egon daitekeelakoan.

Esplika dezagun kontzeptua, aurrera egin aurretik: nabigatzailean helbide bat sartzen duzunean, Interneteko zure hornitzaileak ez du gaur egun webgune batzuen eta besteen artean diskriminaziorik egiten. Edo ez luke egin behar. Telefono konpainiak tratua bera eman beharko lioke ARGIA.com helbideari eta diariovasco.com-i. Gune bat edo bestea lehenago zabaltzea bestelako faktoreen arabera da, baina hornitzaileak jarrera neutrala izan behar du. Interneteko oinarritzko arauetako bat da hori, zeinahi edukitar iristeko askatasuna bermatzen duelako.

Eta printzipio horren kontra egin zuen, adibidez, Interneteko hornitzaileei buruzko proposamen bati Europako Parlamentuan egin zitzaion zuzenketa batek. Iazko martxoan izan zen: eskuineko diputatu zenbaitzuk ontzat eman zuten telekomunikazio enpresek eduki batzuei faborezko tratua ematea, beste batzuk mantsotuz. Aitzakia? Gaur egungo ereduarekin jarraituz gero, sareak ez duela eutsiko. Erabiltzaileen %1ek sortzen duela trafikoaren %20. Beste %20 batek sareko joan-etorri guztien %60 erakartzen dituela. Nolabait bideratu beharra dagoela hori. Diruarekin, noski. Beraz, gehien ordaintzen duen gunea ikusiko du azkarrago internautak.

Zuzenketak ez zuen aurrera egin, baina ez da izan sareko neutraltasuna mahai gainera atera den azken aldia. AEBetan ez bezala, telekomunikazio enpresek jarrera lagunkoiagoak topatu baitituzte Europako politikarien artean, ukiezina zirudienarekin negoziua egiten saiatzeko. Horrek ekarri du azken hilabete hauetan han-hemenka gai berari buruzko adierazpenak entzun izana.

Urrutirago joan gabe, otsailean Cesar Alierta Telefonikako buruak Bilbon adierazi zuen, Google bilatzaileak ordaindu egin beharko lukeela Telefonikaren sarea erabiltzeagatik. Atzetik, Miguel Sebastian Espainiako Industria ministroak esan zuen ikertzeko moduko aukera dela.

Eta arazoa da, agian Google-ek ordain diezaiokeela Telefonikari. Baina aurrekari arriskutsua ezarriko luke gainontzekoentzat. Zer gertatuko litzateke, barbarako, logika bera informazioaren esparrura zabalduz gero? Telekomunikazio talde handien webguneek abantaila lehiakor are handiagoa izango lukete Interneten, buxet gizenagoak dituztenez. Orain arte ezagutu dugun Internet ereduak goitik behera aldatuko luke.

Mikel Olasagasti informatikariak *Gaur8n* gaiari buruz idatzitako artikuluan garbi adierazi zuen: “Kable edo satelite bidezko telebisten modeloa kopiatu nahi dute, non ordaindu dugunaren arabera telebista kate batzuk edo beste batzuk ditugun aukeran sofan aspertzeko”.

rrak norbanakoen esfera pribatuarentzat”; internauten jardueren “monitorizazio orokortua” sortzen duela “baita erabat legezkoak direnenak ere”; eta milaka erabiltzailei eragiten diela, “haur eta nerabeak tarteko”; baita, jazarpen hori talde pribatuek egingo luketela ere, kontrol publikorik gabe. “Jabetza intelektuala gizartearentzat garrantzitsua da eta babestu behar dugu, baina ez genuke jarri behar norbanakoen oinarritzko eskubideen gainetik”.

Hadopi, Sinde eta gu, euskaldunok

Oraindik ere kontua urrun ikusten duzu ordea. Europar Batasuna, nazioarteko akordioak... “Tokitan daude! Ez dira iritsiko nire etxeko ordenagailura!”. Bada, ez, ez dira iritsiko; edo ez hain urrundik behintzat. Baina ogitarteko franko-espainiarraren erdian gaudenez, eskubideen zikiro-janak bete-betean harrapatu gaitu dagoeneko; gaiak badaramatza zenbait hilabete bi herrialdeetako eztabaida publikoan. Sarkozyren gobernu




ellauri
HOTELA

Natura sortetu

Landa Turismoa
Enpresa Zerbitzuak

Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com



Goiko irudia Espainiako Internauten Elkartek zabaldu du, Interneteko Oinarrizko Eskubideen Aldeko Manifestuarekin batera. Milaka pertsonak egin dute bat dokumentuarekin –<http://ttiki.com/11392> helbidean, manifestuaren Facebook-eko orria–, “Sinde legea”-ren mehatxuari aurre egin asmoz.

Europar aitzindari izan da horrelako neurriak hartzen. Frantzia 2007rako su txikian egosten hasi zen sareko libertate batzuk. Urte hartan, FNAC enpresako buru zen Dennis Olivennek txosten bat aurkeztu zuen Eliseoan, Interneteko “deskarga ilegalak” borrokatzeko eta sarean “eskaintza kultural legala” bultzatzeko. Paper horietatik abiatuta –enpresa pribatu baten interes partikularretatik, alegia– akordio batera iritsi eta 2008ko ekainean Ministroen Kontseiluan lege proiektua aurkeztu dizute, “Sorkuntza eta Internet” izenez bataiatua.

Internauten artean “Hadopi legea” esaten diote, egitasmoak aurreikusten baitu izen hori daukan agintaritzaren sortzea, botere judizialetik kanpo, eta horren bidez egile eskubideen urratzaileak kontrolatu eta salatzea. Hasierako lege proposamenean Hadopik zuzenean moztu ziezaiokeen konexioa erabiltzaile bati, egile eskubideren bat urratzen ari zela argudiatuta. Kontseilu Konstituzionaletik pasatzean aldatu egin da atal hori, eta 2009ko irailaren 15ean onartu

duten legeak, indarrean denak, epaitegiei eman die horretarako eskua; baina prozedura azkarren bidez sar ditzakete artaziak erabiltzaileen konexioetan. Errudun jotzen dituzten pertsonak urtebetez ez dute Internetera konektatzerik izango. Bi urteraino-

ko kartzela zigorrak edo 30.000 eurorainoko isunak ere aurreikusten dira.

Eta horiek datuak besterik ez dira. Frederic Mitterrand Kultura ministroak hobeto deskribatu du legearen arima: “Zuzenbidea defendatzea, sarea utopia libertarioen lurralde bihurtu nahi duten horien aurrean”.

Espiritu horrek gidatuta-edo, 2009an Espainian antzeko lege egitasmo bat ekoizten hasi da gobernuak Ekonomia Jasangarriaren Lege Proiektuaren barruan. Zirriborro horretan Interneti buruz esaten dena irakurrita, sarean “Sinde legea” ezizena jarri diote dagoeneko, Angeles Gonzalez-Sinde Kultura ministroaren izenari erreferentzia eginez. Frantziako legearen ahizpa bizkia dela esan liteke: Hadopiren tankerako komisio bat sortzea du helburuen artean, jabetza

**Frederic Mitterrand
Frantziako Kultura ministroak
ederki deskribatu du “Hadopi
legea”-ren atzean zer asmo
dagoen: “Zuzenbidea
defendatzea, sarea utopia
libertarioen lurralde bihurtu
nahi duten horien aurrean”**

Intelektualaren Komisioko Bigarren Sekzioa –“*Sección Segunda*” espainolez; akronimoan, bizitzaren kointzidentziak, SS

ateratzen da–, bote-re judizialek kanpoko hau ere, eta webguneak ixteko baimena izango lukeena, honako baldintzak betez gero: salatutako webguneak egile eskubideak bortxatu izana, irabazi

asmo zuzenekin edo zeharkakoekin; baita “ondareari kalte egin gura izatea” ere. Azken esaldi horri Julio Alonso espainiar blogariak inkisizioaren garaiko *probatio diabólica* delakoen tankera hartu dio, deabruaren froga, alegia; existitzen ez den zerbait demostratu beharra, errugabe izateko. Izan ere, nola erakutsi dezake inork zerbait egiteko gogo daukan ala ez? Eta, bide batez, zer da zeharkako irabazi asmoa? Galdera asko uzten ditu airean lege-zirriborroak. Alonsoren arabera, idatzita dagoen moduan, txeke zuria ematen die egile-eskubideen kudeaketaz arduratzen diren elkar-teei edozein atari ixteko, denbora gutxian eta estatuaren kontura.

Agian horregatik, milaka pertsonak sinatu dute dagoeneko Interneteko Oinarrizko Eskubideen Aldeko Manifestua. Espainiako Internauten Elkarrekin bultzatutako testu hori da, oraingoz, “Sinde legea”-ren aurka gehien zabaldu den ekimena. Horrekin batera, hainbat webgunek “Sinderen zerrenda” izeneko autoinkulpazio kanpaina jarri dute abian: Espainiako Industria Ministeriora –Kultura Ministerioarekin batera legearen sustatzaile nagusia– 1.100 ataritik gorako zerrenda eraman zuten joan den astean. Egile eskubideen *lobby* bati



Peter Hustinx
Datu Babeserako
Europako
Ikuskariak adierazi
du ACTA akordioa
indarrean jarritz
gero, Interneteko
erabiltzaileen
“monitorizazio
orokortua”
nagusituko dela.

erantzuna izan zen, haiek zentsuratu beharreko 200 webgune ko zerrenda publiko egin baitzuten.

Ikusteko dago Frantzia bezala legearen tramitazioak aurrera egin ahala

apur bat bigunduko ote den, baina mobilizazioek erakusten dute herritar askok beren burua mehatxupean ikusi dutela.

Bestelako kultura eredu baten alde

Lege guztiok antzeko prozedura jarraitu dute: industria kulturalaren presioei men egin ez sortu dira; funtsean webguneak ixteko eta erabiltzaileei konexioa mozteko erraztasunak eskaintzen dituzte denek. Horregatik, ez da gehiegikeria esatea Interneteko erabiltzaileen eskubideek mehatxu globalari aurre egin beharko dietela aurrerantzean.

Baina erresistentzia jarrereaz gain, alternatibak eskaintzea inoiz baino beharrezkoagoa izango da. Egile eskubideen aferekin lotuta zenbat eta neurri legal zorrotzagoak iragarri, orduan eta garrantzi handiagoa hartuko dute bestelako kultura eredu baten aldeko proposamenek. Aitzakia copyrightaren urraketa izan baita orain arte; eta Interneten dabilzan edukiak morrontza horretatik libratuz gero, ez da egongo nondik eskua sartu.

Beraz, hein handi batean, edukien sortzaileen eta hartzaileen erabakiaren arabera izango da etorkizuna. Aurrenekoen ardura da edozein gauza sareratzten dutenean lizentzia librea jartzea; bigarrenena, lizentzia askeko edukien aldeko hautua egitea. Eta gaiaz kezkatuta dagoen edozeinena, eztabaida sustatzea. ■

argia.com Internet erregulatze ko sortutako lege-egitasmoei buruzko lotura interesgarriak dauzkazu gure webgunean.



Urki
TXAKOLINA

Askizu Auzoa, Getaria
Tel.: 943 14 00 49 • www.urkitxakolina.com



Juan Lopez de Uralde

«Gure diskurtsoak lapurtu dizkigute»

Behinola natura eurekin ahaztu zela oihukatzen zutenek, gaur naturarekin gu ahaztu garela egingo lukete garrasi. Arrazoi baitzuen Sarrik: «Ea noiz konturatzen garen geure kontrariorik gogorrenak geu garela».

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Kontzientzia izan daiteke ona, txarra, euskaltzalea, erlijiosoa... edo ekologista.

Umetatik landu eta jasotzen duzunaren arabera. Inork ez dezala pentsa kontzientzia ekologista zerutik jausi zaidanik, pixkanaka-pixkanaka sentitzen eta garatzen joan naizen sentiberatasuna da. Gurean, aisialdia oso lotuta dago mendiarekin eta itsasoarekin, eta puri-purian ezagutu duzun natura behin eta berriz burugabeki txikitzen ikusteak amorrua eta aurre egiteko adorea eragiten dizkizu. Ni ia kasualitatez sartu nintzen Greenpeace-n, bertan ziharduen jendea ezagutzen nuelako, eta 1987an, Kantauri itsasoan erraustu nahi zituzten hondakin toxikoen aurkako kanpaina bat aitzina eramatea proposatu zidatelako. Gaur arte.

Urte hartan bertan parte hartu zenuen zure lehen ekintzan.

Ipar itsasoan, eta maitasun handiz oroitzen dudan arren, oso ekintza zorua izan zen. Londrestik deitu zidaten, ekintza baterako behar nindutela esan eta bertara abiatu nintkeen galdetuz. Furgoneta batean egin genuen Londrestik kostarakoa, memorian grabatuta daukadan Talking Heads-en kasete bat buelta-bueltaka zebilela. Kostan, Greenpeace-na zen Moby Dick izeneko barkuan sartu eta kapitaina eta kanpainako

zuzendariarekin bilera egin genuen. Hurrengo egunean, hondakin toxikoak garraiatzen zituen barku batekin topo egingo genuela kontatu ziguten, eta gure lana hura abordatzea izango zela. Ni zur eta lur bezain sinetsita nengoen. Pentsa, “txalupan barkura arrimatuko gara, zuk eskailera jarri, eta igo” esan zidatenean, “eta gora heltzen naizenean zer?” galdetu nuen. Denak barrez lehertu, eta lasai egoteko, ez nintzela gora helduko azaldu zidaten, eta halaxe izan zen, eskaileran gora hasi orduko aurpegian ostikada bat jaso nuen, eta uretan jaso ninduten. Oihartzun handiko ekintza izan zen, fruituak eman zituen, eta horrek poztasuna biderkatu egiten du.

Zer gelditzen da ekintzen ostean?

Ingurumenaren aldeko emaitzak. Kasu hartan, esaterako, hondakin toxikoak itsasoan erraustea debekatuaztea lortu genuen. Horrekin esan nahi dudana da gure ekintzen helburua ez dela sinbolikoa. Aldaketak bultzatu eta eragitea bilatzen dugu.

Ikuspegi horretatik begiratuta arrakastatsua izan da Kopenhageko ekintza?

Denborak esango du asmatu al den eta aldaketan zenbateraino eragin duen. Guk egin behar genuena egin genuen, egin behar genuen momentuan. 120 estatu-buru ari ziren gerora atera zen anbizioarik gabeko pakto etsigarri hori egosten. Ondorioak ondorio, merezi izan zuela uste dut, argi eta garbi erakutsi baikenuen Kopenhagen porrot egin zela. Beste gailur askotan gertatutakoa gertatzeko arriskua baitzegoen, porrota arrakastatzat saltzea. Oso garrantzitsua da hori lortu izana, geroan afera zuzendu eta bideratzeko zirikitu bat uzten baitu. Arrakasta adostu izan balitz, Kopenhageko paktoa ukiezin bilakatuko zen betiko.

Nondik egiten du herren Kopenhageko itunak?

Bi hanka izan eta hiru herren dituen ituna da. Ezer baino lehen, gobernuen partetik ez dago klima alaketari taxuz aurre egiteko kontzien-

tzia sakonik. Denek onartzen dute arazoa, baina politikoki merkeago irteten zaie geldi egotea ezer egiten hastea baino. Beldur gehiago diote benetako paktuari, benetako aldaketa klimatikoari baino. Bigarrenik, lidergo falta ikaragarria dago. Obamari Nobel saria irabazita gaiaren inguruan txintik entzun ez genionean jabetu ginen ez zuela inongo aurrerapausoren eragile rolik hartuko, eta bistakoa da ez dagoela guda hau aitzina eramateko gai den beste liderrik. Azkenik, Danimarkaren presidentzia eta antolaketa eskasa daude. Gizarte zibilari sekulako jazarpena egin zaio, eta jendartearen ahotsa ezabatzea porrotari oinarriak jartzea da.

Klima aldaketa gora eta klima aldaketa behera gabilitza denak, baina badakigu zinez zer den, zer arrisku dakarren?

Denok daukagu klima aldatzen ari den perzeptzioa, baina apenas jabetzen garen alda-



Nortasun agiria

1963ko irailaren 8an jaio zen Donostian. 15 urterekin Madrilera joan, eta bertan bizi da egun. 2001etik Espainiako Estatuko Greenpeace-ko zuzendari nagusia da. Iazko abenduaren 17an Kopenhageko estatu-buruen gailurreko ekintzan parte hartzeagatik hiru aste igaro berri ditu kartzelan eta zain dago bere aurkako diligentsiek zein bide hartuko.



ketaren neurriaz. Nola azaldu bestela hain erantzun geldo eta ahula? *The Age of Stupid* filmeko esaldi batek gizakia epe motzeko arriskuari aurre egiteko oso ondo prestatuta dagoela dio, baina ez dakiela epe luzera etor daitekeenari aurre egiten. Horixe da. Badakigu zerbait gertatzen ari dela, baina ondorioak ez direnez berehalakoak, bitartean zerbait asmatuko dela iruditzen zaigu. Noraez horri beste arazo sakon bat gehitu behar zaio. Gure mezuak, mezu ekologistak, industriak bere egin ditu. Ohartzen bazara industria kutsatzaileenak igortzen ditu mezu ekologistenak. Arazoaren sortzaileak jada ez daude lehen lerroan. Klima aldagetari buruzko eztabaida batera zoaz eta unibertsi-

"Ondorioak ondorio, Kopenhageko ekintzak merezi izan zuen, argi eta garbi erakutsi baikenuen gailurra porrota izan zela. Arriskua zegoen porrota arrakastatzat saltzeko".

tateko irakasle batekin mokoka bukatzen duzu. Non daude Endesa, Iberdrola, eta abarrak?

Zaila da etengabe interes ekonomikoen aurka borrokatzea?

Alde batetik, tarteko institutu eta erakunde andana sortu dute, eta lehen lertatik desagertzeak asko errazten die bidea. Orain urte batzuk askoz argiago agertzen ziren errudunak. Horregatik, gure estrategiak moldatu eta arazoaren iturburua atzamarrarekin berriz seinaltatzera derrigortuta gaude, bestela jai daukagu. Aurpegirik jarri ezean nekez egiten zaio ezeri kontra. Bestetik, oso azkar eta moldakorrek dira, eta baliabide anitz daukate gure aurka ekiteko. Gugatik esaten da baliabide askoko multinazionala garela, baina munstro horiekin alderatuta hutsaren hurrena gara. Gure urteko sarrerak 6,5 milioi eurokoak dira. Zuk pentsa Garoñako zentral nuklearrak 10 egun soilik behar dituela gure diru-sarrerak gainditzeko edo banku handi bateko zuzendariaren erretiro indemnizazioa 70 milioi eurokoa dela. Horrek argi eta garbi erakusten du gure etsaiak zer zenbakitan mugitzen diren, eta jakina, tontoak ez direnez,

diru hori erabiltzen dute euren burua babes-tu eta guri sinesgarritasuna kentzeko.

Sinesgarritasun arazoak daukazue?

Iritzi publikoa tipula bat bezalakoa da, geruza askokoa. Jende batentzat ez dugu sekula sinesgarritasunik izango, lubakiaren beste aldean daude, eta ez daukate inongo interesik guk sinesgarritasuna izan dezagun. Beste jende batentzat erabat sinesgarriak gara, eta badago konbentzitu beharreko multzo handi bat, ez dagoena ez alde eta ez kontra, baina alde guztietako informazioa jasotzen duena. Eguneroko jardunak, mobilizazio indarrak eta ekintzek ematen digute sinesgarritasuna. Aldaketa garaia dira, eta errealtate berrieta-

ra egokitu behar dugu. Mobilizatzeko moduak aldatu dira, eta jende asko hilerri nuklearra etxe aurrean jarrita baizik ez da mobilizatzen. Horri buelta ematea lortu behar dugu, eta jendea erantzukizun politikoak eskatzera ohitu. Nork eskatu dizkio kontuak Zapaterori Kopenhageko porrota-rengatik? Porrotek kostu politikorik ez duteno, ez du inork urratsik emango.

Gizarte demokratikoetan protesta baketsuetarako espazioa falta dela esan duzu berriki.

Botereak kontrako ahots oro mututzeko joera dauka eta izugarri kostatzen da zure aldarriak entzunaraztea. Kontua ez da espaziorik eza, dauden espazio bakan horiek ixtear daudela baizik. Niretzat demokrazia ez da lau urtean behin bozka ematea soilik. Herritar bezala lau urte horietan nire iritzia plazaratzeko eskubidea daukat. Iritzi hori oso modu desberdinetan adierazi nezake, eta horietako bat da protesta. Legea protesta horiekiko proportzionala ez deno espazio askeak ixten ari gara, eta gune liberrik gabeko gizartea zer da, diktadura ez bada? Ez da ahaztu behar ekintza baketsua gizateriaren ondarea dela. Agian ez du epe motzeko eraginkortasunik baina epe luzera jendearen bihotzak irabazten ditu. Horregatik da gure nortasun zeinuetako bat, eta koherentzia hutsagatik bakarrik, Greenpeace zuzendu nahi duen orok kartzelara joateko prest egon behar du.

Koherentzia hutsagatik bakarrik, zein dira bere burua ekologizatzen daukan orok egunerokoan egin ditzakeen ekintzatxoak?

Mundua aldatzeko kolektiboki egin behar da lan. Ez da nahikoa norberak egin dezakeena, sistemak jasanez ingarritasunera baikaramatza beti. Kolektiboki eta modu antolatuan egin behar zaio aurre sistemari. Bai, zuk

"Gure ekintzen helburua ez da sinbolikoa. Aldaketak bultzatu eta eragitea bilatzen dugu"

hondakinak bereizi behar dituzu, baina errauskailua jartzen badizute eta dena bertara badoa alferrik da. Madrilen bizikleta hartzea zure burua arriskuan jartzea da. Horren aurrean heroikoki bizikletan ibiltzen segi dezakezu, edo bestela antolatu, eta hori taldean salatuz presioa egin. Presiorik gabe jai dago, eta presioa ahultzen den unean beti daude interes ekonomikoak zure ahultasunaz baliatzeko prest. Zer gertatu da Donostialdeko errauskailuarekin? 1990. urtean saiatu ziren lehenengoz, geratzea lortu zen, berriz saiatu ziren, berriz geratu zen... Baina lortu arte itzuliko dira. Gure garaipenek iraupen mugatua dute, baina gure porrotak betiko dira.

Ez duzu politikari bat entzungo, alta, ekologiarren aurka hizketan.

Kutsatzaileenekin batera, gure diskurtsoak lapurtu dizkigute, baina horrek ez du esan nahi errealitatean islatzen direnik. Zapaterok anitz aipatzen ditu ingurumena eta klima aldaketa, baina Ingurumen Ministerioa desagerrarazi du eta ez dauka klima aldaketa lehentasun politikotzat. Komunikazioak ekintza politikoak baino indar gehiago dauka, eta bost axola zaie, bien artean amildegia bat egotea. Pentsa, krisi garaietan ingurumenaz ezin dela hitz egin esaten digute.

Mundua aldatu dezakezula uste duzu?

Determinazioa eta jarraitu beharreko norabidea garbi badauzka norbanakoak mundua aldatu dezake. Begira Aminatou Haider, begira Nelson Mandela. Euren jarrerara eta borrokarekin euren kausa bizi-bizirik mantendu dute. Horrela aldatzen da mundua. Garbi dudana da deus egin gabe ez dela deus aldatzen. Danimarkan preso geundela, garbi ikusten nuen gure ekintzak eragina zuela. Jendea ez mobilizatzeko



GUIKURI
nekazal etxea




Guikuri, 1 • 01138 Murua (Araba)
T 945 464084 / 615782323
guikuri@euskalnet.net
www.guikuri.com



OFF THE RECORD

Zintzo

Zintzoa dirudi Juanek. Antzeman egiten zaio noiz ari den beretik, eta noiz bozeramaile lanetan. Apenas saiatzen den disimulatzen. AHT-ren aurkako borrokan ez ditugula ikusten bota diogunean, "ezin dugu denetan egon, eta gure gudak aukeratzera behartuta gaude" eman digu arrapostu, buru-makurka ia. Kopenhagen iritsi ziren lekura iristeko esperantza urria zutela azaldu digu geroago, eta harrituta dabilela ordudanik. 23 urte daramatza Greenpeace-n, bederatzi zuzendaritzan, eta ekintza horregatik soilik hitz egin nahi omen dute denek berarekin. Halakoxea da mundua, halakoxeak gara kazetariak, eta ahaztu egiten zaigu falta dena falta den lekuan nabarmentzen dela gehien.

inertzia dago, baina mugituz gero gauza asko lortu daitezke.

Holako federekin nola ikusten duzu mundua hemendik hogeit urtera?

Bi mundu posible ikusten ditut. Lehenbizikoa egungoaren degradazio bat litzateke, baina horri apenas erreparatzen diodan, ez baitakit nora eramango gintuzkeen. Nik aurreikusten dudan munduan egoera baikorragoa da askoz, urteetan zehar aldaketak txertatu dizkiogulako, eta aldaketa horiek eragindako gatazkek jasangarritasun handiago batera eramango gaituztelako. Mundu parekideago batekin amets egitea gustatzen zait. Mundu horretan natura begirunez tratatua izango da, eta gizakia eta bere inguruen artean harreman berria sortuko da. Ira-

garpen baikorregia dela? Baliteke, baina bestela ez nintzateke hemen egongo.

Hogei urte barru ekintzetan parte hartzen ikusiko zaitugu?

Teorian erretiratuta beharko nuke, baina oraingo lege berri hauekin auskalo! Ez, ziur dakit ingurumenaren aldeko lanean jarraituko dudala, beti egin dudana delako, eta bokazioek ez daukatelako erretirorako egunik. Baliteke ordurako Greenpeace-n ez egotea, baina beste arlo eta ikuspegietatik eragiten ahaleginduko naiz. Helmugarik gabeko bidea da gurea, pauso bakoitza eman ahala elementu berriekin topo egiten duzun bidaia apasionantea. Finean, zer kausa hoberik zeure etxea eta zeure lurra defendatzea baino. ■

NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA

10



FINALA

Martxoaren 20an
LESAKAko Pilotalekuan
17:00etan

Julio Soto, Arkaitz Goikoetxea, Xabier Legarreta “Arano”,
Estitxu Arozena, Oskar Estanga, Xabier Terreros,
Eneko Lazkoz, Julen Zelaieta.

Sarrerak: www.bertsosarrerak.eu

Nafarroako
Bertsazale
Elkartea



Laguntzailea:





• Paraguai •

Sojak bota ditu etxetik

Itapua eskualdean dago 13 de Mayo gunea, Paraguan. Azken sei urteetan hamazazpi aldiz bota dituzte han bizi diren 40 familiak, eta hamazazpi aldiz bueltatu dira bertara, hutsetik hastera. Garai batean, Alfredo Stroessner diktadoreak bere medikuari eman zion zortzi hektarea horien jabegoa eta orain medikuaren ondorengoek soja landatzeko erabiltzen dituzte.

OLMO CALVO RODRÍGUEZ, SEBASTIAN HACHER



Laborantza tradizionalaren alde borrokan

Egurrezko etxeetan bizi dira, inguruko zura erabiliz eraikiak. Familia guztientzat motozerra bakarra dago eta horrekin moztzen dute egurra. Kanporatuak izan ostean, bueltatzen direnean, denen artean berreraikitzen dituzte txabolak. Nekazariak autokontsumorako landatzen dute eta hazi autoktonoak mantentzen saiatzen dira: manioka, artoa, kakahuetea, *poroto*, *avilla*, *zapallo* eta platanoa. Transgenikoari aurre eginez, eskuz esku dabilta haziak familien artean.



Hamazazpi aldiz erretako etxeak

100 bat poliziek eta guardia zibilek hartzen dute parte kanporaketa bakoitzean. Etxeak erretzen dituzte lehenengo, animaliak lapurtzen dizkiete, glifosatoa botatzen diote landatutakoari eta ur putzuak ixten dituzte (berriz ireki behar dira ondoren, argazkian ikus daitekeen moduan). Iazko otsailaren 9an, 37 etxe erre zituzten eta 47 lagun atxilotu (20 emakume eta 27 haur). Petardo hotsa entzuten dutenean, familiek mendi aldera egiten dute ihes.





Zelai kutsatuak

Soja landatzeko erabiltzen dituzte zelaiok, nekazariak bertatik bota ostean, kanporaketa agintzen duten jabeek. Fumigatzeko erabiltzen diren produktuak oso kutsakorrak dira. Teodorak (ezkerrean) dio inguru hori guztia nekazari gunea zela lehen.






argia.com Argazki galeria osatuagoa bildu dugu gure webgunean. Itapuako 13 de Mayo-n egunerokoari aurre egin behar dioten familien aurpegiak ikusi ahal izango dituzu bertan.



Bota dituenaren morroi

Paradoxikoki, bertan bizi direnek batzuetan sojaren uztan lan egitea beste erremediorik ez dute, biziraun nahi badute. 30.000 guarani ordaintzen dizkiete (4,5 euro baino gutxiago) eskuak eta matxetea baliatuz hamabi ordu lan egiteagatik. Paraguain, 2.600.000 soja-hektarea baino gehiago daude egun (2001ean zeudenen bikoitza) eta iaz 3,8 milioi tona soja ekoitzi zituzten.





Gezurrak sinesten



orbitan ez dakit zenbat satellite berri ipini dituzte, hondamendi artifizialak eta naturalak aurreikusi ahal izateko. Joan den


hilabetean, bat gehiago, Florida-tik. Satellite bidezko informazio hori klima-aldaketa neurtzeko baliagarria ere omen da. Txilen probatu duenak badauki. Eta guk sinestu. Power Balance eskumuturrekoa gabonetan gehien saldu zen oparia izan zen. Ilarak egin ziren, 35 euro ordaintzeko.

Pukas dendetan agortu egin zitzaizen Power Balance pulsera hori. Jende askok darabil eskumuturrean, oreka, indarra eta malgutasuna ematen dituelakoan. Gurean probatu duenak badauki. Eta guk sinestu. Adibidez, erabiltzaileetako batek esandakoa da, Benito Lertxundiren kontzertuetan zorabiatu egiten zela lehen, eta eskumuturreko honekin, hara, ezetz, ez dela mareatzen. Beste batzuk, paradisu-mina arindu egin zaiela. Euskal idazle ospetsuek jantzita darabilte, eta arrakasta-emaizta hobeak lortzen omen dituzte. Beste batzuen ustez, aldiz, txorakeria da, kontu hutsa, eta ez du ezertarako balio, baina, badaezpada ere, oparitu egin diete komando-kideei, ezkutuan, jakina, Herrizaingo sailburuak borroka armatuaren amaiera gertu ikusten duela esan genetik, desegiteaz ala ez hitz egiten hasi haiek, eta desorekatu xamar ikusi baitzituzten azken bilera klandestinoan. Nire aldameneko askok ere probatu dute, adibidez, nire lagun baten ama oso kontent dago, egunero korrika egiten du, eta erresistentzia gehiago daukala esaten dio, eta bitxiene da ama orain bost urte auto-istripuz hil egin zitzaiola. Nire neska-lagunak, adibidez, energia askoz gehiago daukala, indar gehiago lagun berriak egiteko, horrelako pulsera beltz bat jantzita zeramala esan zidan joan den asteen, eta plazebo-efektuagatik igual, edo

CONCETA PROBANZA



José Luis Padrón



Rozas



Urkiza

agian psikologikoa ere izan da pixka bat, ez dakit zer izan ote den, baina utzi egin nau surfista batengatik. Sinestu, ez sinestu, zerbait-zerbait, beraz, badauka eskumuturreko horrek. Gune Elkarteak, hilean behin, solasaldia antolatzen du Zumaiako Branka aretoan. Gizartean bizi ditugun arazo eta erronka berrien inguruan gogoeta egitera hizlari ezberdinak gonbidatzen ditu, eta aurreten, denek galdera berari erantzun behar diote: Zertan sinesten duzu? Nik, egia esan, orain ere ez dut ezertan sinesten, lehen bezala, baina presaka ibili behar dut, halere, mundu guztiak bezala egin nahirik, eta bizitzan zerbait sinesteko arrazoi on bat aurkitzeko. Ez baita aski esatea “ez dut sinesten”, probatu ere egin behar baitiozu jendeari. Galileo Galileik orain lauhun urte idatzi zuen *Siderus Nuncius* lan laburra. Ibon Plazaolak euskaraz bikain jarri du, efemeridea ospatzeko, Elhuyarren enkarguz: *Izarretako albistaria*. Galileok “teleskopioa” lehen aldiz erabili zuen zeruko izarrak ikusteko, eta ikuste horren berri ematen du liburu horretan. Ilargia batez ere, Artizarra eta Artizarraren lau satelliteak. Galileok, horrela, tesi heliozentrismen alde egiten du. Ez genion sinestu, badakizue. 1633an Inkisizioak Galileoren aurkako epaia zabaldu zuen, Elizak eskatu ziona egitera behartu zuten eta bere lan guztiari uko egin zion. Teoriak arbuiazaizi zizkioten eta bizi osorako etxean izan

zuten atxilo. Horrez gero nahikoa ikusita zegoenez, azken urteakitsu pasatu zituen. Power Balance pulsera jantzita daramat artikulua idazten hasi naizenetik, eta, egia esan, ez dakit zer sinestu, baina Jainkoak bakardadeari beldurra bere irudira egin zuen teoria aise defendituko nuela sinesten hasia naiz.



Power Balance pulsera jantzita daramat artikulua idazten hasi naizenetik, eta, egia esan, ez dakit zer sinestu, baina Jainkoak bakardadeari beldurra bere irudira egin zuen teoria aise defendituko nuela sinesten hasia naiz



zuten atxilo. Horrez gero nahikoa ikusita zegoenez, azken urteakitsu pasatu zituen. Power Balance pulsera jantzita daramat artikulua idazten hasi naizenetik, eta, egia esan, ez dakit zer sinestu, baina Jainkoak bakardadeari beldurra bere irudira egin zuen teoria aise defendituko nuela sinesten hasia naiz. ■

Alaitz Vives

KAZETARIA

Itzal nazazue

Horra telebistak esana: “Itzal nazazue eta bizi, ahal baduzue behintzat!”. Gizartean gaitzik bada, telebistak erru portzentaia segurua izango du gaitzaren sorrera edo zabalkundean.

Inoiz hitz egin genezake horrela bizitzearen erosotasunaz, gaitza edozein dela ere, erruduna eskura izatearen erosotasunaz, esan nahi baita.

Telebistak aldaketa garaiak bizi ditu baina. Lurreko telebista digitala eta honek ekarritako dozenaka kate berri, euskarri berriak, Internet, sakelekoak, kontsumo berriak. Telebista edonon, edo-noiz, edozein dispositibotan ikusi ahal izateko moduko produktuak ekoizteko bidea egiten ari da.

2003. urtean orduko Eusko Jaurlaritzak ikus-entzunezko sektorearen izaera estrategikoa, lehentasunezkoa, nabarmendu zuen Ikus-entzunezko Sektorearen Liburu Zurian. Pentsatu liteke hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomian berebiziko garrantzia duen ekonomia jarduna dela ikus-entzunezkoa eta kultur industriaren barruan sektore garrantzitsua, pisuzkoa dela. Telebista produkzioa ere sektore horretan sartzen da, beste jarduera batzuekin batera.

Dokumentu horretan aktibitatearen eta sektorearen deskribapena egiten da eta



DANI BLANCO

negozio bolumena, arazo nagusiak, indar guneak eta etorkizuneko erronkak zeintzuk diren eta hauei aurre egiteko bideak nondik nora joan daitezkeen aipatzen dira besteak beste. Ez dira bakarrak, baina beste batzuen artean, sektoreak dituen arazoen artean, atomizazioa eta behin-behinekotasun altua, tenporalitate altua aipatzen dira.

Lan erreformaz eta langileen lan baldintzez horrenbeste hitz egiten den sasoia izanda, nabarmentzekoa da sektore horretan gertatzen dena. Telebista ez da salbuespena, gehiago esango nuke, ezaugarriok bete-betean jotzen dute telebistarako produktuen ekoizpenean lanean diharduena. Eta nago, sektoreko profesionali berean jarduteko aukera eskaintzeko gai ez den sektorea nekez izango dela estrategikoa, berritzaile. Eta nago, sektoreari talentuak ihes egiten badio, nekez izango dela sektore estrategikoa eta berritzaile.

Clusterrak eta enpresen arteko kolaborazio lanak nekez izango dira eraginkor bere lanean profesional direnak beste sektore batzuetara ihesi badoaz. Administrazioaren gonapetik kanpo lanerako gune, esparru sortzaile egokirik eraikitzeko gai ez den sektoreak kale egingo du bere estrategian, halabeharrez. ■

« Telebistako profesionali

berean jarduteko aukera eskaintzeko

gai ez den sektorea nekez izango

da estrategikoa, berritzaile »

TXANDAN

Castillo Suarez



Lenka Reinerová idazle txekiarra Frantziako Estatu-ko La Petite Roquette espetxean kartzelaratu zuten gerra hasieran.

Ziegako leihotik ezin zuen kalea ikusi. Halaber, eguneko paseoa ematera patiora atzeratzen zutenean oso altuak ziren ormak. Galdeketetarako justizia jauregira eramaten zutenean, ordea, “killer-kaiola” batean garraiatzen zuten. Furgonetako gelaxkek hiru-lau zirrikitu zituzten aireztatzeko. Zeharka begiratzuz gero, kalea ikus zitekeen handik. 1939a zen eta Paris jendez beteta zegoen. Reinerová poztu egiten zen furgonetara

Ukabilak estuturik

sartzen zuten bakoitzean, ez bakarrik kartzelako monotonia hausten zutelako, bidaia lasaigariak zirelako ere bai: mundua ez zen egundaino erotu.

Galdeketetan ukabilak estutzen zituen maiz, inork ez ikusteko moduan, berokiaren sakelan sartuta edo mahai azpian estalita. Ez zen keinu iraultzailea, ordea. Ukabilak zenbat eta gehiago estutu, orduan eta nabariagoak ziren odolaren taupadak. Horrek lasaitu egiten zuen. Bizirik zegoen, bizi nahi zuen eta bizirik iraungo zuen.

Bitxia da. Bizitzari erreparatzen diogunean heriotza gertu dugulako izaten da maiz. Hurbileko norbait joan zaigunean, gehienetan. ■

Gorka Urkizun

MUSIKARIA

Dylanen abokatuak

Publizitateak mundua erosi zueneko ondo gogoan daukat. Telebista aurrean nengoen. Edo Interneten bestela. Matrioska itsusia bailitzan, iragarkiak iragarkien barruan zetozela jabetu nintzen: “Ni ez naiz inozoa... Handitu zure zakila. Audi bat irabazi duzu. Viagra merkezurreen... dudarik gabe; Online nago...”

Anestesia taldeak disko oso bat eskaini zion ultrakomunikatzen gaituzten aro honi, argi utziz horrek ez digula inolaz ere informazio fidagarriagorik bermatzen. Taldearen izena bera sartu beharko genuke apika izenburuaren barruan eta honela irakurri, mezua bere osotasunean ulertzeko: *Anestesia ultrakomunikatzen*. Alegia, anestesia dela horrenbeste hedabideren bitartez gure artean barreiatzen dutena. Urola Kostatik Tolosaldeara salto eginez, Deabruak-ek errime kantatzen duena harira letorke: “Antzeko mezu subliminalekin anestesiatzten gaituzte”. Zer eta *Behin ta berri* izeneko doinu. Izenburu aproposa, inondik ere, ultrakomunikazio horren maiztasuna adierazteko.

Maiztasunaz ari naizenez, gauero errepikatzen dudak akats bat aitortu nahi dizuet. Mesanotxean irrati-iratzargailu horietakoa daukat, argi gorritzetikoa. Bada, lotara aurretik biharamunean iratzartzeko ordua



DANI BLANCO

programatu eta irratia prest uzten dut, hurrengo goizari albistegiekin ekiteko. Hartara, batek ez daki uholde batek, atxiloketa batek edo ez-dakit-zenbat-miloi langabetuk esnatuko duten. Kafearen atariko “txute” informatiboa izan ohi da niretzat, masokista xamarra, egiari zor. Beharbada inozoa ez, baina apur bat *Kaiku* banaiz, hori egiteagatik.

Dena dela, hori egin gabe ere ohartuko zineten publizitatearen azkeneko *boutadeaz*: albisteak (ere) patrozina daitezke. Urliak lurrikara hau aurkezten dizu, sandiak Bagdadeko leherketa berria, eta abar. Zinismoaren gailurra ote?

Adibiderik behinena gaur goizekoa. *El Mundoren* iragarki batekin esnatu nau irratiak, hiru-lau albiste txepelen ondotik. Egunkari honen kazetaritza garbiaz mintzo da luzea egin zaidan spota. Laburbilduz, hedabideak “argitu” dituen hainbat kasu aipatzen ditu, eskerak eman beharko balitzaizkie bezala aipatu ere: 11-M, Faisán, eta abar. Larritu nauena, baina, ez da

hori izan, ez bada azpitik entzuten zen musika bera. Ametsetan ote nengoen oraindik ala *The Times They Are A-Changin* da iragarkirako ERABILI duten kanta?

Segidan etorri zait, noski, bigarren galdera hau: non arraio daude Dylanen abokatuak, beharrezko direnean? ■

«
Urliak lurrikara hau aurkezten
dizu, sandiak Bagdadeko
leherketa berria, eta abar.
Zinismoaren gailurra ote?
»

HIRUKO TXIKIAN
Joxemari Ostolaza



Ikaragarria. Askotan bezala, emaztea eta alabarekin zaude ohiko lagunez gustuko tabernan. Beiretatik hara irudi batek moztan dizu kalaka, patrol berdeak eta begiazpirainoko lepokoez hornituriakoak ikusten dituzu zelatan. Denbora geldituan dardarka, oro kieto zain geratzen zara. Tabernara egiten du dozena batek, alabaz jabetzen dira eta zure etxera zuzentzen zaituzte. Zazpi bat orduz bertan, guztia altxatzen dizute ordenagailuak, paperak eta gainerakoak pilatuz, dirua barne, alaba koartelera eramaten dizute. Badakizu jakin torturatuko dutela. Rodolfo Aresek

Komisaldegirainokoa

zure alabaren tortura salaketa ETArekin ohiko agindu estrategikoa dela esaten du.

Baina zuk badakizu, onenean komisaldegietako protokoloak ez duela patroleko bidaiarena jasotzen, eta bereenak eta bi eginez txiki-txiki eginda sar zezaketela ziegan inpunitate osoz. Izu horretan bizitzen duzue emazteak eta biek kartzelarrainokoa. Hemen, egoera hauek lege ditugu. Zuk eta zureek lehen ere jasandakoa da zure alabak orain bizitakoa. Bere ahoz dakizu orain, zenbaitek jakin nahi ez duen hori, hemen tortura ohikoa da. Torturatu ez izana dugu salbuespen. Berdin dio nork agintzen duen. Tortura lege dute. ■

Isiltasunari jarriak



DANI BLANCO

I

Ez da berdina lurrikararen
osteko isiltasuna
edo begiez itsasoari
lapurtu nahi dioguna.
Isilak dira kalabozoa
eta hegan doan luma,
hiltzailearen azken keinua,
agureen maitasuna...
Horren izan daiteke arina,
edo hain harri astuna!
Gorde ta gorde sabel barruan
bolbora eta beruna...
Beldurra bada ahoa itxi
eta zabaltzen diguna
esan gabeak esan dezake
esateko daukaguna.

II

Gerra-ostea. Baserri zahar bat.
Sukalde soila ta hitsa.
Irrati batek amenazuak
hara-hona darabiltza.
Isiltasuna erein zutenek
kendu zieten hitza,
umetokiak beldurrez betez
mutu jaio zen bizitza.
Amorruaren seme-alabok
ez galdetzea baldintza,
tortura bada ahoa itxi
ta zabaltzen duen giltza...
Gero urteak, minak, gorpuak,
kartzela eta sasitza,
eta oraindik esanezinei
jaten ematen gabiltza.

III

Eztei-eguna bilduz marko bat
mesanotxean luzaro
zahartu dena, horitu dena
urtez urte, aroz aro.
Esandakoak asko dira ta
esan gabeak gehiago:
ezpainak josi, muxu bihurtu
eta etapak igaro.
Sofa gorrian eseri eta
sentitzen dira arraro,
isiltasuna bete nahian
mila eta bat barbaro.
Baina edozer betetzekotan
hustu_egin behar lehenago:
eraztunaren erdigunea
hutsik ta isilik dago.

IV

Ohe zabal bat. Bi gorputz etzan.
Maindire artean hiru.
Desioaren labirintoan
minotauroa testigu.
Pentsamendu bat ihesi joan da
fantasiaren gatibu,
hainbeste aldiz isildu eta
irrealia irudi du.
Gure amorru eta desiren
kartzelero dirudigu!
Disimulatu ustean baina
denak ikusten zaizkigu.
Kontzientziari ziria sartzen
saiatu arren beti gu
esan gabeak ere entzuten
dizkigula badakigu.

V

Bozka kutxa bat garden-gardena
ezin transparenteago:
askatasunen sehaska edo
iritzien sarkofago?
Lehen atzamar diktadore bat
ta orain, berriz, akabola,
bostekoaren atzean bost hatz
ezin diktadoreago.
Demokrazia, demokrazia
zurekin haserre nago!
Aske naizela diozu baina
ez al naiz zure esklabo?
Demokraziak badauka hatz bat:
gure ezpainetan dago.
Ta iritzia ematen dugu
gero eta baxuago.

VI

DOINUA: "Martxa baten lehen notak" (Eguzkiak urtzen du goian).



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Eszena berriak tradizioaren dantzan

Euskal dantzaren alorrean, tradizioa eta sorkuntza kontzeptu bateraezinak bailiran erabiltzen ditugu maiz. Baina gaur tradizioa dena noizbait sortua izan da, eta bidean mila aldiz moldatua, etengabe birsortua beraz. Ondorengo lerrootan ikusiko denez, euskal dantza tradizionalaren erreperitorioan ia ezer ez da uste ohi dugun bezain “betidanikoa”.

UNAI BREA

Argazkiak: dantzan.com

OTSAGABIKO DANTZAK eta Kukaik taularatu-tako azken lana parez pare jarrita, zailtasun handirik gabe jakingo genuke esaten bi horietatik zein den tradizioa eta zein den sorkuntza, biak euskal dantza izanik. Baina mugak ez dira horren argiak, askotan hala nahi genukeen arren. Edo hobe litzateke esatea tradizioaren eta sorkuntzaren arteko bereizketa egitea alferreko lana dela, Euskal Herrian horren oso zale garela jakinda ere.

Oier Araolaza adituarekin berba egin dugu kontu hauetaz, dantzan.com elkartearen egoitzan izandako solasaldi luzean. Abiapuntua argi du Araolazak: “Nik ez dut tradizioa ulertzen sorkuntza gabe, eta iruditzen zait, gainera, tradizioaren oinarritzko ezaugarrieta-ko bat dela sorkuntza”. Zaharra eta berria, lehengoa eta oraingoa, purua eta kutsatutakoa... binomioak izen asko har ditzake, eta badu nolabaiteko indarra gurean. Baina binomio faltsua da. Gaur egungo euskaldunok ez dugu orain dela 100 edo 200 urtekoek bezala dantza egiten. Ezta saiatuta ere.

Tradizioa pelikula baten modura irudikatu dezakegula dio Oier Araolazak. “Batzuentzat, tradizioa gordetzea fotogramarik zaharrenera itzultzea da, kontuan hartu gabe pelikula ez dela alferrik igaro”.

Tradizioa pelikula batekin konparatzen du Araolazak. “Pelikula horretan fotogramak daude, eta fotograma bakoitza aurrekoaren desberdina da, desberdintasuna agerikoa ez izan arren. Baina bi metro harago dagoen fotogramari begiratuz gero, orduan bai, konturatzen gara zerbait aldatu dela. Eta batzuetan eszena osoa aldatzen da”. Arazoa da ez daukagula pelikula horren kopia osoa inon gordeta. Sarritan puska handiak falta izaten dira, eta irudi bat baino ez da gelditzen, momentuko argazkia. “Argazki zaharrenera bueltatu nahi izaten dute batzuek, den-dena hor ageri den bezala egin, baina pelikula ez da alferrik igaro”. Araolazaren ideiak guztiz bat datoz 60ko hamarkadan Juan Antonio Urbeltzek, Argia dantza





KEZKA DANTZA TALDEA



Nafarroako hiru adibide: Otsagabiko dantzek —ondo gordetako tradizioaren adibiderik onenetakoa— aldaketa ugari ezagutu dituzte denboran; Jaurrietako dantzak, musika-doinu huts batetik abiatuta Argia dantza taldeak sortutakoak orain dela 40 urte; eta Iruñeko San Lorentzoko dantzak, 90eko hamarkadan *ex novo* sortuak, eta dagoeneko tradizio bihurtuak.

taldearen bitartez, zabaldutako filosofiarekin. Rikardo Arregi zenak beste ARGIA batean, esku artean duzun honetan bertan, egindako elkarrizketan, honelaxe aldarrikatu zuen Urbeltzek: “Gaur egungo euskaldunek bezala dantzatu nahi dugu”. 1967. urtea zen.

Urbeltzen pentsamoldeak berebiziko garrantzia du afera honetan. Azken batean, gaur egungo euskal dantza tradizionalaren erreperitorioaren zati esanguratsu bat Argia taldeak 60ko hamarkada hartan hasitako berreskuratze lanean oinarrituta dago. Adibiderik ezagunena Jaurrietako dantzak dira: Urbeltz kantutegi batean aurkitutako doinu batetik abiatu zen, inork ez zuen gogoratzen dantza nolakoa zen. Gaur egun ondo ezagutzen ditugun urrats horiek duela 40 urte asmatutakoak dira, baina ez edonola, “tradiziotik apailatuta baizik”, Oier Araolazaren hitzetan. Alegia, logika baten menpe. Lehenengo zatia Baztango mutil-dantzen urratsak dira, eta bigarren partean, kontuan hartuta Jaurrieta Pirinio aldean dagoela, eta Iparraldetik gertu, Zuberoatik hartutako beste mugimendu batzuk daude. Urbeltzek, “gaur egungo euskaldunok bezala dantzatu nahi dugu” esan zuenean, berehala erantsi baitzuen beste hau: “Baina horretarako gure aurrekoek nola dantzatzuten zuten jakin behar dugu”.

Hutsuneak betetzeko, sortu

Jaurrietakoa bezalako adibide gehiago dago. “Uste zabaldua da Argiak erreskate lan hutsa egin zuela —azaldu digu Oier Araolazak—, erabat arkeologikoa; arkeologoak lanak izaten ditu bildutako zeramika puskek elkarri behar bezala itsasten, baina gainera, maiz, puska osoak ere falta zaizkio, eta zuloak bete behar izaten ditu”. Argia taldeak,

Urbeltzek nahiago baduzue, beldurrik gabe ekin zion lan horri. “Zilegi al den hori? Nik ez nuke zilegitasunaz hitz egingo, arduraz baizik. Urbeltzek dio, eta bat nator, gure ardura dela daukagun ondarea zaindu eta gutxienez jasotako kalitate berarekin transmititzea. Eta ahal bada, hobetzea. Jasotakoa hobetzen ez duen berrikuntzarik ez zait interesatzen”, diosku Oier Araolazak.

Argia taldeak beste gauza garrantzitsu bat egin zuen: bere lan egiteko era zabaldu zuen Euskal Herrian. Berreskurapena eta sorkuntza uztartuz ondutako erreperitorioa inguruko taldeei irakatsi zien, eta haiek beste talde batzuei... Zirkulu zentrukide horiek Euskal Herri osotik hedatu ziren, eta zenbait taldek, ikasi ez ezik, arkeologia lanari ekin zioten eurek ere. Garai hartan asko zegoen berreskuratzeke, eta horregatik 60ko hamarkadan hasitako olatu hark arrasto nabarmena utzi zuen dantza tradizionalaren corpusean.

Olatuak segida izan du gerora ere. Eta askotan, uhinak osmosiz zabaldu dira, Araolazaren berbak erabiltzearen. Esan nahi baita, herri batek antzinako dantza berreskuratu —hau da, hein handi batean birsortu— eta berehala hasten direla aldamenekoak gauza bera egiten. Adibiderik ez da falta. Hala gertatu zen, esaterako, Erriberako *paloteado*-ekin, 70eko eta 80ko hamarkaden artean. Jaurrietako adibidetik hurbilago, Zangozan Corpus-dantzak sortu zituzten XXI. mendearen atarian. Abiapuntua, orduan, doinua baino gutxiago izan zen: noizbait dantzari batzuei ordaindu izanaren aipamen historikoa baino ez.

Pelikularen hurrengo fotograma filmatzeko ez zen asko behar: dantzak *ex novo* sortzea, aurretik ezer existitu gabe. Egia esan, Zangozakoa baino pixka bat lehenago

Azken hamarkadan, inolako aurrekaririk gabe sortutako dantzak erabat txertatu dira euskal dantzaren tradizioan



–1997an– egin zuten lehenengo urratsa, Iruñean, San Lorentzoko dantzak sortuz. “Ez zeukaten aurrekaririk, baina ez zuten behar”, dio Oier Araolazak, “urtez urte leku eta egun berean dantzatzeko dantza batzuk behar zituzten, eta baita sortu ere”.

XXI. mendeko euskaldunen tradizioa

Iruñekoa akuilu izan zen Araolazaren taldearentzat, Eibarko Kezkarentzat. Beraiek ere sumatzen zuten zerbait asmatu beharra. “Urtero herriko jaietan egiten genuen agerraldia besterik ez geneukan. Tradizio propiorik ezean, zer geneukan guk eskaintzeko Eibarretik kanpo?”. Kezka horrek bultzatuta, Arrateko Amaren dantzak sortu zituen Kezkak, 2005ean. Ordutik, urtero antzeztu dituzte irailaren 8an, Arrateko Ama Birjinaren egunean. Ezpata-dantza bat da, Gipuzkoako elementuak hartuta, baita Markinako-

Arrateko Amaren dantzak, Eibarko Kezka taldeak 2005ean lehenbiziko aldiz aurkeztuak. Kezkak *ex novo* sortutako dantza da, Gipuzkoako eta Markina inguruko tradizioan oinarrituta. Dagoeneko guztiz tradizionala dela aldarrikatzen du Oier Araolazak, dantzaren sortzaileetako batek.

ren bat ere. Bistan da euskal dantza dela, baina tradizioa da? “Bai, noski. Guk garbi geneukan gurea tradizionala izango zela, berria izanagatik. Hori bai, guztiz berria izateak askatasuna ematen du”. Askatasun horretaz baliatuz, ahalik eta jende gehien parte har dezakeen dantza sortu zuten, gizonak eta emakumeak modu berean hartzen dituen. Alegia, XXI. mendeko euskaldunek bezala dantzatu nahi dute. Dantza errituala da, jantzi erritualekin egindakoa, ez da Beyonce, baina XXI. mendekoa da. Eta garrantzitsuenak: hemen ere funtzionatu du osmosiak. Apurka, Gipuzkoa osotik zabalduz joan da Kezkaren eredia. Han-hemenka, ezpata-dantzak sortuz joan dira, betiere ezaugarri nagusi batekin: genero-diskriminaziorik ez dute. Eszena berria hasi da, baina lehenengo pelikularekin koherentea. Horra, tradizioaren definizioa. ■

www.erein.com

Nobela beltza

erein argitaletxearen eskutik

uzta gorria saila



Xahmaran
Jon Arretxe



Heriotzarako jantzia
Donna Leon



Aurpegiak gabeko hitzaileak
Heinrich Markell



Gauaren sakonean
Haruki Murakami



galdera-erantzun bidezko mahai-jolasa

badakrit

35 euro

ARGIAren harpidedunek
%15eko deskontua

FORMATU BERRIA

Ludi**toys** 

Eskaerak: 943 36 86 61
info@luditoys.com
www.luditoys.com



argia
JOLASAK

zorri urtetik gorakoentzat
8+

Antzerkia

Mamacrea

Nahi bezalako teatro-karta

“Ez dugu antzerkia gugandik urrun dagoen zerbait bezala ikusi behar; are gutxiago, kontuan izaten badugu gure nortasuna indartzeko balia dezakegula”, esan digu Mamacrea antzerki taldeko sortzaile Itziar Diaz de Duranak. Izan ere, sormena edota ohiko antzerkia ez ezik, asko dira, arte eszenikoen ildotik, Mamacreak eskaintzen dituen zerbitzuak.

ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN

Argazkiak: Mamacrea

IAZ, IBILERA LUZEKO AKTORE BIK –Nuria M. Crespo eta Ana i punto– eta kudeaketa zein ekoizpen lanak, besteak beste, bere gain dituen Itziar Diaz de Duranak sortu zuten Mamacrea antzerki talde kooperatiboa. “Taldea kooperatiba bezala antolatu dugu, figura horrek bat egiten duelako egin nahi genuenarekin: hau da, gura dugun arloan lan egiteaz gain, lana gure eran kudeatu nahi dugu. Proposamen berriak egitekotan, gauzatzeko erak edukiek bezain-besteko garrantzia behar duelakoan gaude”.

Egun, antzerkira gerturatzen den jende kopurua gero eta txikiagoa izanik, antzerki konpainia sortzeak arrisku-tsua dirudi. Mamacreakoek, baina, pentsatzen dute gakoa eskaintza dibertsifikatzean datzala. “Antzerki merkaturatua, Euskal Herrian behintzat, ez dabil oso ondo. Arlo pribatua etekin ekonomikoaren aldeko apustua egiten da, eta neurri txikiko proposamenak nahiz berritzaileak zokoratzen dira. Gauzak horrela, ikusleak antzerkira hurbiltzea erakundeen ardura da. Antzerkia ez da gugandik urrun dagoen zeregina. Hemengo ia herri guztiek dauzkate antzokia edo antzerkirako erabiltzen diren gelak, baita euren lanak sistematikoki taularatzea nahi luketen taldeak ere. Ezin dugu ahaztu antzerkia lanpostuak sortzen dituen arloa dela”, azaldu du Diaz de Duranak.

Sar daiteke? antzezlanean eszena bat behean. Taula gainean egiten den teatroaz gain, Mamacreak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu bestelako esparruetan.

Euskal Herriko antzerki-eskaintza oparoaren barruan keinuetan oinarritutako antzezlanean egitea da Mamacrearen bereizgarri nagusia, oso testu laburrez egindako obrak. “Keinuak gure nortasuna islatzen du; keinua esateko era berezia da, gure marka. Gure ustetan publiko zabalera heltzeko bide aproposa da, lengoaia unibertsala”, dio Diaz de Duranak. Hirurek parte hartzen dute lanak erditzerakoan: arestian esan lez, proposamen berriak erro-errotik dira berriak.

Eta hirurak emakumeak dira. Horrek antzezlanean nola eragiten duen galdetuta zera erantzun dute: “Antzezlanean sar daiteke, esaterako, heriotza, bakardadea edota menpekotasuna. Jorratzen ditugun gaiak horiek dira. Hau da, emakumeak gara eta gure izatetik egiten dugu lan, baina gaiak unibertsalak dira; ez dira emakumeen gaiak”.

Ez da, dena dela, sormen lana Mamacrearen zeregin bakarra. Asko dira arte eszenikoen balizko erabilpenak eta, etorkizunera begira, dibertsifikazioan ikusten dute ogibideari eusteko modua. “Gure ikuskitzuna eta besteak ekoizteaz gain, geuk taularatzeak ez diren produktuak ere baditugu, hots, antzerkiaren beraren osagaiak baliatuz, keinua bereziki, ohiko antzezlanean ez direnak eskaintzen ditugu. Giza-kion ekimena da antzerkia;



beste arloekiko elkarlanerako primerako tresna dugu. Horregatik, arte eszenikoak enpresaren eta hezkuntzaren munduan erabiltzea proposatzen dugu. Enpresa-munduentzat, adibidez, hainbat zerbitzu dauzkagu, komunikazioarekin, formazioarekin eta marketinarekin zerikusi handia dutenak. Harremanetarako eta komunikazio abildadeak lantzeko tailerrak egiten ditugu: aktore jolasetan oinarritutako tailerrak dira, jendearen aurrean rol bat egin behar dutenei zuzenduak –komertzialak, adibidez–. Ez dira lotsa galtzeko erabilpen ‘terapeutiko’ hutsak, nork bere garapen pertsonala eta profesionala indartzeko tailerrak baizik. Oso erronka zaila izan arren, berria den heinean, itxaropentsua ere bada”, dio Mamacreako kideak.

Ez da baina, enpresei eskaintzen dieten zerbitzu bakarra: “Marketina ere lantzen dugu; proposamenak berriak ez badira ere, gure artean ezezagunak dira, sorpresa eragiten dute. Iaz, esaterako, Bilboko Udalak antolatzen duen Jet Lag jaialdia ezagutarazteko ikuskizun berezia prestatu genuen. ‘Gerrila marketina’ deitu genion. Jaialdiaren izaera kontuan izanik pertsonaiak sortu genituen eta kalez kale ibili ziren Jet Lag 09 aurkezten, jendea asaldatzen. Ez da publizitate hutsa, bezero bakoitzak behar duenari erantzuna emanez egindako ikuskizun berezia eta errepikaezina da”.

Hezkuntzari ere arreta eskaintzen dio Mamacreak. “Bitxia da, baina gaur egun, eskolaren alde ludikoa kirolak eta lehiak hartuta dago. Eskola gehienetan ez dago antzokirik; horren ordez kiroldegia dago. Antzerkiak ere tokia behar duela pentsatzen dugu. Horregatik, ikasleentzat eta gurasoentzat produktuak eskaintzen ditugu. Ohiko

“Bitxia da, baina gaur egun, eskolaren alde ludikoa kirolak eta lehiak hartuta dago. Eskola gehienetan ez dago antzokirik; horren ordez kiroldegia dago”


ITZIAR DIAZ DE DURANA

antzerki tailerrak eta ikastaroak dauzkagu, baina baita berri-berriak diren beste ekimen batzuk ere, non arte eszenikoek ikasteko balio duten. Bilbon, Miribilla auzoko eskolan eta bertoko auzoa birgaitzeko mahaiarekin batera, ari gara hainbat kanpaina garatzen –azken biak birziklapenari buruzkoak izan dira–. Helburua da, antzerki proposamenen bidez, zenbait balore hedatzea eta sendotzea. Ikasleek curriculumeko baloreak jorratzen dituzte jolasaren eta arte eszenikoen bidez, zertan ari diren ia-ia konturatu gabe. Bost minutuko agerraldiak egiten ditugu geletan: klasea geldiarazten dugu eta, jolasetik abiatuta, erreakzioak sortzen ditugu umeengan; interesa eta parte-hartzea piztu nahi ditugu. Eta badauzkagu sendien-

tzako antzerki tailerrak ere. Aurrekoetan bezala, helburua ez da antzezlan bat prestatzea eta egitea: autoestimua eta konfiantza, bat-batekotasuna eta aipatutako curriculumeko baloreak garatzen ditugu”.

Badira interes handiko beste zerbitzu batzuk ere Mamacreakaren karta gozo honetan: “Ederrek dira ‘gau sortzaileak’. Hori-tan, momentu bakoitzarentzat proposatutako gai baten inguruan –kabareta, esaterako– giro errepikaezina sortzen dugu gonbidatutako pertsonen euren lana zertan datzan azal dezaten. Eta joaten direnek ondo pasatzen dute. Ez da antzerkira mugatutako ekimena: argazkigintza, sukaldaritza edota literatura ere agertzen dira”.

Bukatu aurretik, Itziar Diaz de Duranak beste zerbitzu mota bat ere azaldu du: “Ikuskizun karta bat daukagu, bezeroek nahi dutenean egiteko: etxera dantza, olerkia, kankak... eramaten ditugu”. Zer iruditzen? Ekarriko dugu etxera opera apur bat, edo gogokoen dugun filmeko eszena? ■




TEUSA

ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO TEKNIKAK
TÉCNICAS DE RESTAURACIÓN DE EDIFICIOS

Olmos pasealekua 14, 5. solairua 20016 DONOSTIA
Tel: 943 401340 - Fax: 943 401511
teusa@teusa.com - www.teusa.com

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Adi Holden.
Adi Holden.
Danbaka/
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 48'10".
10 euro.

Melodiaren, distortsioaren eta arriskuaren mugan

BERGARAKO talde gazte honetako kideek eskarmentua dute beste proiektu batzuetan: esaterako, Cool Panic talde rockeroan; baina, oraingoan, erregistroz eta testuinguruz erabat aldatu dute. Iraganeko ingelesez utzi eta euskara hautatu dute; eta rock-and-roll eta power-punk-rocka alboratuta, 1990eko hamarkadako intentsitatea duen rocka hartu dute abiapuntu. Proiektu honekin oso kontzertu gutxi egin dituzten arren, jada erakutsi dute gai direla etengabe

esperimentatzeko eta giro berriak sortzeko. Iaz Danbaka lehiaketako Debagoieneko talde onenaren saria eskuratu zuten eta disko hau da emaitza. Ama Say, Cancer Moon, Ironic Cancer Phobia... dira gogoratu dizkiguten hurbileko izenetako batzuk, baina bide propioa darabilte melodiaren, arriskuaren, distortsioaren eta intentsitatearen ertzetan.

www.myspace.com/adiholden

Adi Holden

«Lehen diruak ez zituen kontzertuak hainbeste baldintzatzen»

Musikan "fedea galduta" daukazu?

Fedea ez, aspertuta gaude musikari ez profesionalok zuzenekoak egiteko ditugun zailtasunekin. Lehen, diruak ez zituen kontzertuak hainbeste baldintzatzen. Gaur egun, dirurik sortzen ez duten taldeek jotzeko aukera gutxi dute. Hala ere, badaude "oasiak", adibidez Bergarako gaztetxea, non ondo tratatzen dituzten musikari guztiak, eta musika zale asko gerturatzen den.

"Ez dezagun ahaztu: harria eta egurra nire sorteria". Industria artean hazi izanak markatu zaituzte?

Nerabezaroan eskolara joatean egunero Deba ibaia ikusten genuen eta beldurgarria zen; industrializazioaren efektu bortitza airean sumatzen zen. Gainera, taldeko asko industrializazioak bul-

tzatutako immigrazioaren seme-alabak gara. Industrializazioak eta post-industrializazioak bete-betean harrapatu gaituzte, gure nortasuna eta jokaera moldatuz.

Zer eman dizue euskarak? Gertutasuna, mezuekin identifikatzea?

Musikan hastean entzuten genituen talde eta bakarlarien egiteko erara hurbiltzea nahi genuen. Orduan ingelesez abesteko moda zegoen eta gu ere harrapatu gintuen. Hortik pasa ondoren, Adi Holdenekin euskara aukeratu

genuen. Eta, bide batez, orain arte kasu egin ez genion alor bat garatu dugu: hitzena eta esanahiena.

Beldurra eta desioa dira diskoaren muina?

Bai, izan daiteke. Beldurra ematen digu gizarteak nola estutzen gaituen. Hipotekak, lanaren estresa, ziurtasun eza, despersonalizazioa, buruko gaitzak... Iraganean bizitako esperimentazio politak desiratzen ditugu; edo irudikatu edo amesten ditugunak. Hori bai, aurrera begira beti. **Zuen kontzertu bakoitza diferentea da?**

Oso gorabeheratsuak izan daitezke; gauza berriak egiteko prest gaude. Azkeneko kontzertuan DJ baten laguntza izan genuen, girotze lanetan. Agian hurrengo bi baxurekin edo hiru gitarrarekin egingo dugu. Musika esperimentazioarekin lotzen dugu. ■



Liburuak

KRITIKA

Londres kartoizkoa da.

Unai Elorriaga.

Elkar. 218 orrialde. 17,50 euro.

Helduen literatura

Saioa Ruiz Gonzalez

‘Bide Barriak’ Elorriagarengan?

UNAI ELORRIAGAK ibilbide literario berri bati ekin diola esaten da. Nik ez dakit. Antza denez idazleak, tematika zein idazkera aldetik, bere obra erabat berritu du. Baina niri dagokidanez, kritikaren esparruan zabaltzen hasia den *doxa* horren alde ala kontra lerratzerik ez dut. Horren arrazoia ximplea da; ez naiz bizkaitarraren aurreko idazlanetan aditua. Ez dut, Espainiako Literatura Sari Nazionala (2002) eman zion *SPraiko tranbia* liburu arrakastatsua irakurri, ezta honen ondotik kaleratu dituen beste bi eleberriak ere. Beraz, ez naiz bere fase literarioen xehe-tasunetan sartuko. *Londres kartoizkoa da* izenburuaz kaleratu duen laugarren eleberri hau, irakurle bezala lehena da niretzat, eta horrexegatik, hemen eta orain kokatzen den idazlearen arte-faktu literarioaz mintzatuko naiz.

Borgesek, *Tema del traidor y del héroe* (Artificios, 1944) izeneko ipuinean esaten duen bezala, “*la acción transcurre en un país oprimido y tenaz*”. Eman dezagun Londres, Argentina, Txile, Kanbodia edo Euskal Herria bera. Totalitarismoaren ajea islatzeko, geografia zehatzik gabeko edozein leku aukeratu du idazleak, eta kutsu paradigmatico horrek, hain zuzen ere, ematen dio eleberriari benetako gordintasuna: “Argi neukan gai honen esentziari heldu nahi niola” aipatu zuen Elorriagak. Izan ere, liburuan kontatzen den istorioak, gaiak dakarren gogortasuna arintzeko balio duten zertzelada fantastikoez hornitua, tirania agintaria edota errepresioa protagonista izan duen herrialde oro besarkatzeko balio du.

Phineas egunero igotzen da hamazazpigarren teilatura, eta bertan, diktadura garaian desagertu zen arreba noiz itzuliko zain gelditzen da. Soraren desagertzea, pertsonaien elkarrizketen ardatz nagusi bilakatzen da eta, era berean, eleberriaren zati desberdinen arteko bizkarrezurra osatzen du.

Egituraren antolaketa berezia da, idazleak berak dioenez, “psikotiko baten burmuina bezalakoa”. Itxuraz, elkarren artean inongo loturarik ez duten lau narraziotan banatua dago eta horrek, zenbait irakurlerengan ezinegona sortu du. Hala ere, nik uste dut, gaiari eusteko helduleku eta teknika horren erabileran datzala eleberriaren orijinaltasuna. Ez da diktadura bati buruzko kontaketa hutsa. Oroitzapenetatik abiatuz, josten den istorio konkretu eta, aldi berean, unibertsala izan daiteke. Ildo horretan, Hasier Etxeberriak eleberriaz emandako iritzia partekatzen dut; “azkeneraino iritsi ezean, ez duela balio abiatzeak ere” esaten duenean. ■



Euskal Herriko ekonomiaren historiak

Anton Borjak Gaiak argitaletxearekin plazaratu du *Euskal Herriko ekonomiaren historia* liburuak. Historiaurrean hasi eta gaur egun arterainoko errepasoak eskaini du Borjak, hainbat faktore aztertuz: nekazaritza, industria, merkataritza, demografia, gizarte-dinamika, sistema politikoak... Ezaugarri

horien argitara analisi sakona egiten du lanak gure herriaren historia-ko unerik gatazkatsue-
nean. Erromatarren etorrera, hiribilduen sorrera, klase feudalak, foru-sistema, erregimen zaharraren krisia, Karlistadak edota industrializazioa ikuspegi ekonomikotik landuta aurkituko ditu irakurleak azal gogorreko edizioan aurkeztutako lan sakon honetan. ■



*Euskal Herriko
ekonomiaren
historia.*

Anton Borja.


Gaiak.

255 orrialde.

22 euro.

‘Behinola’ aldizkariaren 20. zenbakia

Haur eta gazte literaturari buruzko aldizkaria da *Behinola* eta Galtzagorri elkarteak argitaratzen du. 2009ko abenduan plazaratu zuten orain arteko aldizkariaren azken zenbakia. Gai ugari jorratu dituzte barruan, besteak beste, Joxan Ormazabali egindako elkarrizketa. Umeentzako literaturaren orainaz eta geroaz mintzatu da Ormazabal, baita editore lanetan izandako esperientziak ere. “Hizpide” atalean Xabier Etxaniz Erlek eta Manu Lopez Gasenik XXI. mendean publikatutako haur poesia liburuak aztertu dituzte eta Juan Kruz Igerabidek artikulua plazaratu du genero horretan aitzindari izan zirenei buruz. Galtzagorriren irakurketa mintegiari buruzko informazioa ere badakar aldizkariak. ■



Behinola 20.

Batzuen artean.

Galtzagorri elkarteak.


70 orrialde.

10 euro.

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Ordainketa. Leunki. 2. Landareari adarrak ebakitzea. Etxeko abereak uxatzeko erabiltzen den hitza. 3. Soto, upategi. Izateko era. 4. Emakumezko izena. Naizen honek. 5. Gadolinioaren sinboloa. Eliz ordezkariaren batzar. Su eman, piztu. 6. Laguntza. **Argazkian**. 7. Zurrumurru. Lotsakor. 8. Izan. Osasunez beta.

Goitik behera:

1. Pixagura. 2. Anaiarte, bereziki erlijiozko helburua duena. 3. Gailur, tontor. Hegazti mota. 4. Azken bokala, errepikatuta. Nekagarri. 5. Siriako biztanle. 6. Etzanda dagoena. Molibdenoaren sinboloa. 7. Minerala. Kanoi motza. 8. Nafarroako ibaia. 9. Jakin nahia duena. 10. Letra izena (pluralean). "Ahula" hitzaren hasieran. 11. Irendu dena. 12. Bat-batean gertatzen den zerbaiten onomatopeia. 13. Txukuntasunik gabe, zikin. 14. Kasa. 15. Aldapa.

Sudokuak

Erraza

6			3	8	2	7	5	4
4			6				3	
					5			
8			4			1		5
	2		7		8		9	
7		3			1			2
			5					
	3				6			9
9	6	7	2	1	4			3

Zaila

		8		9	4			
			8					2
	6	5				7		
3			2				7	
6				3				9
	2				9			1
		1				5	6	
4					7			
			6	1		4		

Soluzioak

Erraza

5	8	3	9	6	7	2	1	4	5	8
5	3	1	8	7	6	4	2	9		
2	4	8	5	3	9	6	1	7		
7	5	3	9	6	1	8	4	2		
1	2	4	7	5	8	3	6			
8	9	6	4	2	3	1	7	5		
3	7	2	1	4	5	9	6	8		
4	8	5	6	9	7	2	3	1		
6	1	9	3	8	2	7	5	4		

Zaila

8	5	2	6	1	3	4	9	7		
4	3	6	9	5	7	1	2	8		
7	9	1	4	8	2	5	6	3		
5	2	4	7	6	9	8	3	1		
6	8	7	1	3	5	2	4	9		
3	1	9	2	4	8	6	7	5		
9	6	5	3	2	1	7	8	4		
1	4	3	8	7	6	9	5	2		
2	7	8	5	9	4	3	1	6		

Ezker-eskuin: 1. Pagu. Erreki. 2. Inaut. 3. Xai. Izarra. 4. Ahar. 5. Gid. 6. Eizan. 7. Maia. 8. Obus. 9. Sinar. 10. Iren. 11. Iren. 12. Zart. 13. Enas. 14. Kabu. 15. Ikea.

Goitik behera: 1. Pixagura. 2. Anaiarte. 3. Gailur. 4. Uu. 5. Siriako. 6. Etzanda. 7. Molibdeno. 8. Minerala. 9. Kanoi. 10. Letra. 11. Ahula. 12. Bat-batean. 13. Txukuntasunik. 14. Kasa. 15. Aldapa.

Banketxea txikituta

Korsikan gertatu omen zen.

Bi agure Cortiko plaza nagusi-siko banku batean eserita. Bat-batean, parean duten banketxean lehergailu batek eztanda egin eta bertako kristal, pareta, ohol eta traste guztiak, txiki-txiki eginda, plaza guztian barreiatzen dira.

Agureak buruak besoetan




bilduz babesten dira, eta leherketak eragindako hauts hodeia saretzen hasten denean, ohartzen dira plazako zorua billetez estalita dagoela. Orduan batek, bi besoak luzatu, eskuak zabaldu eta beste-ri begira:

— Ottaviu! Egin ezak nik bezala! Haizea altxatzen badauk, aberastu gaituk!

Ezpalak

JON TORNER

Euskal ilustratzaileak Bartzelonako Ficomic azokan



MAIATZAREN 6TIK 9RA bitartean egingo da Bartzelonako Ficomic Komikiaren Nazioarteko 28. Erakusketa. Aurtengo edizioan euskal ilustratzaileak gonbidatu dituzte antolatzaileek. Getxoko Komiki eta Manga Azokak egin ditu Eusko Jaurlaritzaren eta Ficomic-en arteko zubi lanak. Kultura Sailak 150 metro koadroko erakus-

mahaia jarriko du Bartzelonako azokan eta euskal artisten argitalpenak ezagutzera emateaz gain, mahai-inguru eta hitzaldiak jasoko ditu. *Euskomik* izeneko gunean Euskal Irudigileen Elkarte Profesionalak plazaratutako *Irudia* katalogoa aurkitu ahal izango da. 30 marrazkilariren lanak bildu dituzte liburu horretan. Interneten: www.ficomic.com.

Ikastekoeskubidea.info sortu dute

EUSKAL PRESO POLITIKOEN ikasteko eskubidearen alde unibertsitatean orain arte burututako eta aurretik egingo diren ekimenen buruzko webgunea jarri dute martxan: www.ikastekoeskubidea.info. ELA, LAB, EILAS, Ikasle Abertzaleak eta Euskal Herriak Bere Eskola sindikatu eta taldeek bat egin dute preso politikoen ikasteko eskubidearen aldeko ekimenarekin. Albisteak, agenda, bideoak eta abar bilduko dituzte webgune berrian.

Maite eta Mikel Gurrutxaga neba-arrebek irabazi dute haurrentzako albumak sortzeko aurtengo Etxepare saria, *Alex nire munstro lagun on-ona* lanarekin. Liburua Pamielak argitaratuko du euskaraz, eta Factoria K de Libros argitaletxeak gaztelaniaz eta galizieraz.

Peter Friedl artista austriarrak hainbat obra bildu ditu Bilboko Rekalde aretoan. Ekarri dituen argazki, bideo muntaia eta filmen artean *Bilbao Song* izeneko pelikula eman du zeresan handiena, besteak beste Julen Madariaga ETaren sortzaileak eta Pirritx eta Porrotx pailazoen parte hartu izana kritikatu dutelako batzuek. Euskal pintoreen zenbait margolanetatik abiatuta, Euskal Herriko historia eta kulturari buruzko bost minutuko bideoa osatu du Friedlek. Aktore profesionalaz gain, egileak bere ustez Euskal Herriko pertsonaia esanguratsuak direnak aukeratu ditu. Ekainaren 6ra arte izango da ikusgai erakusketa.

● **Itziar Ituño aktoreak Aizu! aldizkarian:** «*Goenkale* eskola handia izan da niretzat, bai euskaragatik, baita interpretazioagatik ere, aukera asko daudelako nork bere burua ikusi eta akatsak zuzentzeko. Asko ikasi dut, baita gauzak arin egiten ere. Baina aukeran nahiago ditut zinema eta antzerkia. (...) Telebistan oso gustura nabil, badaramatzat sei bat urte, ia funtzionario ere bihurtu nau *Goenkale*. Aktore batentzat oso garrantzitsua da holako lan batek ematen duen ziurtasuna. (...) Jendeak gurago du komedia bat drama bat baino. (...) Jendea, barre eginez gero, poz-pozik ateratzen da, nahiz eta zentzurik eta mezurik gabeko istorio bat ikusi».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php



Abarrak

UNAI BREA

Olaeta balletak: ikusi eta ikasi

Ballets Olaeta. Amets baten koreografia. Erakusketa. Bilboko Ondare Aretoa (Maria Diaz de Haro, 11). Martxoaren 23ra arte.

PENA DA, injustizia ez esatearren, hau baino hamar orrialde lehenago hasten den erreportajearen Segundo Olaeta aipatu ez izana, itzal handiko pertsonaia baita euskal dantzaren historian. Ordain xumea izan bedi artikulu hau.

2008an, Olaeta familiak hamarkadetan bil-dutako ondarea utzi zion Bizkaiko Foru Aldundiari, eta horren zati bat ikusgai dago orain Bilboko Ondare Aretoan. Bisita laburra egin diot *Amets baten koreografia*-ri, ez presaka nenbilerako, erakusketa ziztu bizian ikusten delako baizik, "ikusi" hitzak museo batean duen ohiko esanguran. Jantzi batzuk, tipikoak zein Olaeta familiako kideek sortutakoak; agiri zaharrak, zenbait gutun oso interesgarri barne; musika tresnaren bat; eta askoz gehiagorik ez. Txukuna, dotorea, eta kontsumo azkarrekoa.

Ikustez gain ikasteko grina daukanak, berriaz, erakusketa honetan du aukera paregabea. *Amets baten*

koreografia ez da nik uste nuen bezain ikusgarria, baina informazioz beteta dago. Dantzaren historia maite baduzu, orduak erraz joango zaizkizu hemen, dela Olaeta balletaren historia irakurtzen –aretoaren hormetan kapitulu bana–, dela ezin falta litekeen gune interaktiboan, non besteak beste argazki eder mordoak aurkituko duzun, horiek bai Olaetatarren ibilbidearen lekukotza mardula. Ondo egindako lau dokumentaletan laburbilduta ere emango dizute

ibilbide horren berri, erakusketa amaierako areto txiki ilun erosoan. Hori bai, gainerakoan akatsik ez duen hizkuntz koofizialtasunak gune interaktiboan huts egiten du dezente. Pena da.

Eta pena da, injustizia ez esatearren, abenduaren 11tik zabaldu dagoen erakusketa baten berri ematea atek ixtear dituen. Zorionez, kasu honetan injustizia ez da hain larria, Bilbotik Baionara joango baita *Amets baten koreografia*, eta handik Gernikara. Noiz, ez dago hain argi, baina jakin badakigu Baionakoa udan izanen dela. Ordura arte.



Zoo zoroa

15 joko baino gehiago

Irudimena eta sormena suspertzeko ezin hobea!

3-5 urte
PCrako
jokoa

www.elhuyar.org/zoozoroa
www.elhuyar.org/edizioak

% 5eko deskontua
www.elhuyar.org/
edizioak
helbidean

Osasuna

JABIER AGIRRE

Alergien garaia iritsi da

AZKEN DATU ESTATISTIKOEN arabera ia %10 dira udaberriaren etorreraren beldur diren herritarrak –portzentaje handia, beraz–, alergia ditxoso horiengatik, eta haiek sorrazten dituen sintoma deserosoengatik: malko ugari, sudurreko kongestioa, begi, eztarri eta faringeko azkura, eta abar. Kasu larriagoe-tan arnas zailtasuna eta asma ere ager daitezke.

Sintoma horiek sistema immunitarioak emandako erantzun gehiegizkoaren ondorioa besterik ez dira. Pertsona “normalentzat” inolako kalterik gabekoa den substantzia batek –kasu honetan polenak, baina beste edozein izan daiteke– eragiten du erantzun alergikoa, histamina izeneko substantzia kimikoa askatzen delako zeluletan. Kutsadura atmosferikoak indartu edo areagotu egiten du lore-hautsaren eragin alergenikoa. Horregatik, alergia usuagoa eta

nabarmenagoa da hirietan, bestelako giro naturalagoetan baino.

Alergia nola sortzen den ikusi ondoren, prebentzio-neurri bezala sistema immunitarioa alferrik ez kargatzen edo zirikatzen saiatzea da egin dezakegun gauzarik onena.

Kanpoaldean jarduerak, ahal izanez gero, goizeko lehen orduetan eta arratsaldeko azken partean ez egitea komeni da. Ordu horietan baitago polen-kontzentrazioarik gehien eguratsean. Bestetik, hauts asko duten giroak eta lekuak saihestu behar dira, eta autoan goazenean leihoak ondo itxi. Etxeak, noski, hauts eta hezetasunetatik libre egon beharko du.

Janari-alergiak dituenak errazago jasango ditu udaberriko alergia-ren sintomak. Horregatik, pertsona horiek hobera egiten dute beren dietan alergia eragiten dieten jan-edanak murriztu edo erabat baztertzen dituztenean, esnea adibidez.

Zenbait elikagai oso mesedegarri zaizkie alergikoei. C bitaminak (laranjak, kiwiak) defentsak orekatu eta histamina neutralizatzen du. Laranja-koloreko barazkiek eta frutek mukosak babesten dituzte.

Udaberriko alergieie aurre egiteko, komeni da kanpoaldean egiten diren jarduerak goizeko lehen orduetan eta arratsaldeko azkenekoetan ez egitea.

Maratoia, sufrikario handiagoo emakumeentzat gizonentzat baino

Baina ez emakumeen gaitasun fisikoak murriztagoak izategatik, izenburua irakurrita denok pentsatu duzuen bezala. Arrazoia beste bat da: itxuraz, maratoia egitean emakumei gehiago erasaten die aireko kutsadurak gizonen baino. Ez dakigu zer gertatzen den hain luzeak ez diren lasterketetan.

<http://ttiki.com/11173> (Ingeleseaz)

Koman dauden gaixoen komunikazio-gaitasuna aztertzen

Koman daudenak noraino kontziente dauden jakin daitekeela frogatu berri du neurozientzialari talde batek. Egoera vegetati-boan bost urte daraman gaixo batekin komunikatzeko gauza ere izan dira.

<http://ttiki.com/11174> (Euskaraz)

Moto-gidarien entzumenari kalte egin diezaieke kaskoak

Istripua izatekotan kolpeaz babes-tu bai, baina ordainetan zer kalte eragin dezake moto-gidarien kaskoak? Hori ari dira aztertzen Britainia Handiko unibertsitate batean. Diotenez, 110 km/h abiaduran joanda kasko barruan sortzen den zarata, lantokietan onartzen den gehieneko zarata baino ozenagoa da. Eta entzumenean kalte larriak eragiteko nahikoa.

<http://ttiki.com/11175> (Gaztelaniaz)

Unai Brea



WWW.PRAIRIEGARDENS.COM

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Gero berokoak

LANDAREEN KLOROFILA egokitu eta berdetzen diren itsas bareen ildotik, behiak ez baina geu bai, geu adinarekin berdetzen garela gogorarazi dit lagun batek. Heldu beharko genukeen, zahartu eta berdetu? Urdindu behar eta berdetu, gordindu? Ihartzen eta berdetzen, hezetzen? Lizunkeria berdeak utzitakoa, bai, lizunak berdetzen duela, dio berak... Zurbiltzen bai, nik. Zurbiltzen, gibekekoak aurpegia horitzen duenean bezala. Hori da, nik horitu esango nukeenean berak berdetu. Berdoztu esan beharko ote nuke? Masailak gorrien eta gogoa lizunen nituen garaietan Berdosta izena zuen etxe batean bizitua naiz. Zuldarra nagusi zen garai gogoangarrian... Zuldarra amaitzen direnean bizitza bukatzen dela uste duten horietakoa naiz ni. Gero berokoak, beroarenak kendu behar beti. Beti.

Heze, lizun, gordin, lerdin, berde bizitzen den garaietako zuldarraren pikorta azalean azaleratuz azaltzen denean, nola-hala kendu arteko bakerik ez da izaten. Berdan-belarra ezagutu arte. Berdanak, zuldarra sendatzeko artea baitu. Berdan-belarra, berbena, *Verbena officinalis*, garbitzaile aparta da. Paderan berotu, oilo-arrautza zuringoarekin tortilla egin eta mantarrean bilduta, txaplata bero-beroa, azalean ipintzen da. Eta jartzen den tokian jartzen dela gortutx alde horri garbitu ederra emango dio, sakon asko. Sinusitisa arintzeko, birika eta bronkioetako karkaxak libratu eta botatzeko, baita azalpea zoltzean



BLUEHAZYJUNEM



NOVA

Berdan-belarra (goian), zuldarra sendatzeko aparta. Zoldar-belarra (behean), berriz, hobeia omen zoldutako zaurientzat.

tontortutako zuldar pikortak errotik kentzeko ere. Zoltzearentzat, orde, hobeak omen dira zolda-belarra (*Symphytum officinale*) eta zolda-belar txikia (*Symphytum tuberosum*). Zoldutakoak bezala, zoldu aurretik zauriak gozo orbaintzeko ere aukerakoak. Berbena eta hirurak azalerako belarrak dira, zein baino zein indartsuago eta soinaren barrura ez sartzeko adina toxiko. Ez edan, beraz, haren urik! Ahuldade bikaina harrapatua du nik dakidan batek...

Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba, 2.214 zenbakiko *Erlikiaz* *erlikia* artikuluan *Lycium europeum* landarearen euskal izena hesilaharra dela diozu. Beste toki askotan, orde, hesilaharra deitzen diote *Rhamnus cathartica*-ri, hau da, gaztelaniaz *espino cervical* deritzonari. Bi landareek izen bera ote dute? Hemen, Gipuzkoan, ba al dago *Lycium*-ik?

Jabier Diaz (Ikaztegieta).

Iepa Jabier. Hesilaharra izena dela-eta, beste izen ugarirekin gertatzen den bera azaltzen duzu, ederki asko. Izen bat esan eta landare asko izan. Hori txarra edo ona den ez dut iritzirik. Aberastasuna eta landareekiko gertuko hartu eta emana, baina baita nahasmendua ere, ageri da jokabide horretan. Gipuzkoan *Lycium* generoko landarerik baden ez dakit. Ea gure irakurleetakoren batek badakien eta esaten digun...



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
Inausketa lanak: landareak hazteko, mantentzeko eta berritzeko
Barrualdeak lorategi bihurtzea

Luberri Basolanak, S.L. • Axpe ibaiarta 28, beheko solairua, B12 lokala
Erandio (Bizkaia) • Mugikorra: 629 41 18 38 • Tel.: 944 671 713 • Faxa: 944 674 241
luberri@luberri.biz • www.luberri.biz

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Harakina, lapurra eta “santua”

WWW.GIPUZKOAKULTURA.NET



Ezkerrean, Joaquin Iturbe *Santua*, grabatu baten arabera. Eskuinean Donostiako Urgull mendiko Mota gaztelua; Iturbe iheslari trebea izanagatik, ez zuen Motako espetxetik ihes egitea lortu.

ELGETA (GIPUZKOA), 1758. Joaquin Iturbe *Santua* jaio zen. Luzaroan Ermuko harakina izan zen, gaztetan pirata eta kortsario jardun zuen, eta Farnesioko erregimentuan bederatzi urtez aritu zen, baina bidelapur gisa egin zen Iturbe ezagun.

Gordetako dokumentuek 1796 eta 1799 bitartean elgetarrak egindako okerkeriak biltzen dituzte. 1796ko uztailaren 5ean Eibarko Pagaegi base-riari eraso zion, bederatzi gizonen buru; 600 dukat lapurtu zituzten dirutan, eta beste 400 lanabesetan eta bestelako objektuetan. Handik hiru egunera, Domingo Elberdin mandazain nafarra-ri egin zioten eraso Deba eta Mutriku arteko Astigarribia ibarrean, baina Elberdinek ihes egitea lortu zuen.

1797ko urtarrilaren 10ean, Gatzaga gainean, Juana Sarribarte izan zen Iturberen biktima, eta Juan Antonio San Martin, berriz, Urkiolan, 1798ko martxoan. Urte bereko apirilaren 9an Joaquin Iturbek lankide bati, Eskoriatzako harakinari, behorra eta uhaleria lapurtu zizkion. Handik bost egunera, Ozarrate inguruetan, Melquiades Goiari gainean zeraman dirua eta erlojua ostu zizkion.

Urte horietan hainbatetan atxilotu eta espetxeratu zuten *Santua*, baina elgetarra iheslari trebea zen. Tolosako eta Bilboko espetxeetatik alde egitea lortu zuen, eta Mutrikutik birritan ihes egin zuen. Batzuetan horman zuloa eginez lortzen zuen ihesa. Baina hizlari ona ere izango zen, behin baino gehiagotan, girgiluek min ematen zioten aitzakian, zaindaria aska zezaten konbentzitu baitzituen.

1799ko irailaren 23an Pedro Urkiaren etxean atxilotu zuten, Mallabiako Areitio auzoan, eta itsasoz Donostiara eramane zuten. Handik aurrera ez zaigu Iturberen ekintzen berri iritsi eta, hortaz, Urgull mendiko Motako espetxetik ihes egiterik ez zuela izan uste da. Donostiakoa inguruko kartzelarik seguruena eta gogorrena zen.

Antonio Javier Ajarrista fiskalak heriotza zigorra eskatu zuen Ermuko harakinarentzat, “edozein hiltzeko prest” zegoela argudiatuz. Baina bere espedientearen arabera, Iturbek ez zuen inor zauritu edo hil. Kondairak dio eskopetaren muturra propio okertuta zeukala, arrisku hori saihesteko. Ziurrenik horregatik esaten zioten *Santua* Gipuzkoako gaizkile ezagunenetakoari.

WWW.PANORAMIO.COM



Arrastoak

Unescok
gizateriaren
historia osatu du

HISTORY OF HUMANITY lanaren azken bolumena argitaratu berri du Unescok, mende erdia baino gehiago horretan lanean jardun eta gero. Obrak sei bilduma ditu eta bilduma bakoitzak zazpi bolumen. Guztira 1.600 espezialista baino gehiago aritu dira gizakiaren historia osoa biltzeko ahaleginean.

1947an *Gizateriaren Aurre-
rapen Zientifiko eta Kulturalaren
Historia* biltzeko batzordea
eratu eta 1961ean lehen bolu-
mena argitaratu zen. 1978an
proiektua birplanteatu zuten,
ekimenaren joera eurozen-
trista eteteko —Afrikak, esate-
rako, obraren % 1,5 baino ez
zuen hartzen— eta kontinente
guztietako 26 kideko batzor-
de berria osatu zen.

Hurrengo lana bilduma
Nazio Batuetako hizkuntza
ofizialetara itzultzea izango
da, hizkuntza bakarrean bai-
tago eskuragarri. Adibidez,
Karibeko historia ingelesez
dago eta Hego Amerikakoa
gaztelaniaz.

WWW.UNESCO.ORG



History of Humanity lanari
buruzko argibide gehiago
www.unesco.org/culture/humanity/ helbidean.

Amelia Barquin

HUHEZIKo irakaslea

«Etorkinak ez du arazo berririk ekarri euskararen auzira»

Gurasoak ikastolako patioan, subjektibotasuna gainezka. “Halako ikastetxea zegokigun, baina alaba hara ez bidaltzea erabaki genuen immigrante pila daudelako. Gainera, konfliktu asko, eta kalitate eskasa”. Barquin irakasleari joan gatzazkio, bestelako diskurtso osasungarri baten bila.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

Immigrazioa dugu hizpide, eta ez bestelako gairik, dela ikasleen balioak, euskararen erabilera eza, edota jangeletako elikadura. Zergatik jardun immigrantez?

Duela hamar urte ez bezala, gaur egun etorkinen kopurua aintzat hartzeko modukoa da. Duela hamar urte, hezkuntza sisteman etorkinen seme-alaba ez zen %1 ere. Oraintxe, EAEn, %7 da gutxi gorabehera. Etorkinen presentzia dugu, beraz. Beste kontu bat: hezkuntza sistemak ez zuen etorkinen presentzia aurreikusten. Fenomeno azkarra izan da eta, hala ere, nik esango nuke oro har sistemak nahiko ondo erantzun diola egoera berriari.

%7 ei da etorkinen kopurua EAEn. Sistemak nahiko ondo erantzun arren, zerbaitek karranka egin du, bestela ez genuke gaia hizpide.

Oraindik orain entzun nion Francesc Carbonell irakasleari esaten hezkuntza sistema gai izan dela magnitude hori daukan ikasleria berriari harrera egiteko. Hori horrela da, baina kontu gehiago



“Immigrazioarena fenomeno azkarra izan da eta, hala ere, nik esango nuke, oro har, sistemak nahiko ondo erantzun diola egoera berriari”.

ere badira. Hara, etorkinak hirietan kokatu dira gehienbat, nahiz eta gainerako herrietan ere badiren. Hirietan herrietan baino desoreka handiagoak gertatzen dira: etorkinak halako eta halako auzoetan bizi dira; autoktonoen erreakzioa ere kontuan hartzekoa da: bertan geratzen dira, edo beste norabait alde egiten dute?; autoktono horiek nora bidaltzen dituzte beren seme-alabak, auzoko ikastetxera, edo beste batera, etorkinen seme-alabekin ez dezaten harremanik izan? Ereduen auzia ere tartean dago, sare publikoan etorkinen kopurua askoz handiagoa delako, oro har.

A eredura jotzen dute etorkinen seme-alabek.

Hala zen hasieran, baina hori ere aldatzen ari da. A eredua dagoen lekuetan gertatzen da hori, egia, baina eredu hori ez dagoen lekuetan nekez gertatuko da. Donostia baten, adibidez, gutxiagotan, Gasteizen baino. Bestalde, etorkinak ez du hemengo hizkuntz egoeraren berririk. Gehienek ez dakite hemen gaztelania ez beste hizkuntza bat hitz egiten dela. Etor-tzen dira eta gure egoera soziolinguistikoarekin egiten dute topo, eta ez dute erraz ulertzen. Eta nola ulertu? Zergatik ikasi behar dute beraien seme-alabek, kalean entzuten ez den hizkuntza bat? Batzuek bi hizkuntzak ikasi behar izaten dituzte, euskara eta gaztelania. Beste alde batetik, ume asko ez datoz bi edo hiru urterekin, hamabi, hamalau urterekin baino. Horiek hemengo bi hizkuntzak ikastea ezin erraz izan. Hala ere, esan egin behar zaie ezinezko dela haien seme-alabek gaztelaniaz ez ikastea Gasteiz batean, adibidez, nahiz eta eskola euskaraz izan. Soziolinguistika pixka bat dakienak badaki hori, baina atzeritar baten aburuan hori ez da hain ebidentea, ez du seme-alabak gaztelaniaz ikasiko duen segurantzirik, eskolan nagusiki euskaraz egiten bada: “Nik gure umeak kalean hitz egiten den hizkuntza ikas dezan nahi dut”, “Bai, ikasiko du”, “Baina nola, eskolan beste hizkuntza batean ikasten ari bada?”. Eta azaldu beharra dago, eta denbora eta energia inbertitu.

Kanpotik etorritakoari ematen diogun mezua, euskaraz eskolatu arren gaztelaniaz ere ikasiko dutela seme-alabek.

Uste dut gure gizartea abegikorra dela etorkinekin, oinarritzko gauzetan behintzat. Hala ere, mesfidatia ere bada, euskarari dagokionean, esaterako, edo hezkuntza kalitatearen inguruan, gatazka berriei buruz, eta abar. Euskara dela eta, gure hizkuntzarekiko atxikimendu eskasa leporatzen zaie etorkinei. Duela gutxi esaten zidan politikari batek: “Lortu behar dugu etorkin nagusiek ere euskaraz ikastea!”. Eta

“Arazoa sukaldari txinatarren umea da, edo eraikuntzan ari den marokoarrarena. Behartsuak direlako, alegia. Elitismo puntu bat dago hor: gure seme-alabek nor gonbidatu dute urtebetetze festara? Gai hauetaz ez da hitz egin ohi. Hezkuntza kalitateaz hitz egiten da”

nik: “Bai, nahi duzun guztia, baina pentsatu behar dugu ez dugula haiekin lortuko bertako elebakarrek lortu duguna baino gehiago. Gure erronka nagusia ez da hori, haien seme-alabak baino. Bertako elebakarren kasuan gertatzen zaigun bezala”.

Gizarte autoktonoari dagokionean, zein da zuzendu behar zaion mezua?

Hor izugarritzko erantzukizuna dugula uste dut. Ezin dugu dena etorkinen gain utzi. Niri asko gustatzen zait dantzaren metafora. “Integrazioa” elkarrekintzan egiten den zerbait da; dantza baten moduan irudikatzen badugu, bikote dantza da, ez bakar-kakoa. Lagunik gabe izan liteke dantza, baina ez da integratzen izango. Eta, gure eskoletan, etorkinen seme-alaba asko integrazio dantza hori beren kabuz, bakarrik dantzatzen ikusten ditugu, eta integrazioa ez da posible, ez bakarrean jardunda. Hori xe gertatzen da etorkinen seme-alabak bakarrik dauden ikasgeletan, edo nagusiki haiek beste inor ez dagoenean. Zenbait lekutan, etorkinen umeek gelak beteak dituzte, eta autoktonoek ez dute bertarako asmorik. Hezkuntza Sailak erantzukizun handia dauka desoreka horretan: bada garaia neurri sendoak hartzeko ghettoak desagertzeko.

Autoktonoek ez dute etorkin berrie-kin gela banatu nahi?

Kasu latzak ikusiak gaude, bai Gasteizen, bai Bilbon. Zenbait lekutan, ia-ia %100 dira ikasle etorkinak. Euskara gutxien duten eredu- etan gertatzen da hori, A eta B eredu- etan. Eskola batek, eman dezagun, bi lerro baldin baditu, euskara gutxien du- nean etorkin gehiago pilatuko dira.



“Pentsatu behar dugu etorkin nagusiekin ez dugula lortuko bertako elebakarrek lortu duguna baino gehiago. Gure erronka nagusia ez da hori, haien seme-alabak baino. Bertako elebakarren kasuan gertatzen zaigun bezala”.

Horrela jardunez, umeak banatzen eta parekotasun eza sustatzen ari gara. Asko hitz egiten da etorkinen integrazioaz, eta apur bat nazkatuta ere banago. Oraindik orain, jardunaldi batzuetan esan zuten Frantzia etorkinen seme-alaben artean esateko modu bat erabiltzen dutela: “Zoaz, integra zaitzaten!”. Inor antzarak ferratzera bidaltzeko beste era bat... Integratu eta integratu, zer arraio da hori, ordea? Integrazioa eskatzen diegu, baina bikotekiderik gabe. Eta nola egin behar dute? Umeen kasuan argi eta garbi ageri da hori. Ez badituzte indigenak ezagutzen, ez badira haiekin harremanetan sartzen nola integratu? Eta A eredu-ko eskola publikoan nekez gertatuko da hori, autoktono gutxiak nahi dutelako hara joan.

Integrazioa eta inklusioa, berdin dira? Hezkuntzan inklusioa hobesten da. Integrazioak halamoduzko konnotazioa du: kanpoan dagoen zerbait, edo norbait, barrura sarraraztea. Bi multzo ageri dira hor: kanpoa eta barrua. Inklusioan aldiz, ez: ez dago barru ez kanpo, dena da bat, guztio-na, guztiontzat. Era horretara, eskola ere guztiontzakoa da, berdin da nor datorren bertara, etorkin nahiz autoktono, berea duen lekua beteko du, eskubide eta betebeharez. Inklusioan kultur aniztasuna beste aniztasun mota bat da, askoren artean: genero aniztasuna, sozio-ekonomikoa, norberaren gaitasun edota interesei lotutakoa...

Aniztasuna, aberastasunaren sinonimo?

Hori da hezkuntzaren diskurtso profesionala, eta politikoki zuzena. Aniztasuna aberastasun da, kudeaketa egokia baldin bada tartean. Gainerakoan, ondorio negatiboak ere izan ditzake. Ijitoak ditugu adibide. Joan deneko 40 urtean hezkuntza sistemen barruan ditugu. Aniztasuna izan

Etorkinak, eta zer?

Amelia Barquin (Bilbo, 1965). Filologia Erromanikoan doktore. Etorkina zuen aita, Kantabriatik etorria. “Gaur egun, ikusten dut nola joan zen bertakotzen, zein estrategia garatu zituen horretarako. Bilboko Arangoiti auzoan bizi ginen, langile auzo petopetoa. Espainiatik etorriak ziren bertako guzti-guztiak. Bazen emakume bat ‘la vasca’ esaten ziotena! Euskaldun bakarra Arangoitin! Gure etxepean baziren Extremadura, Gaztela, Galizia eta gainerako bazter guztietatik etorriak. Eta langileak. Euskalduna ontziolan lan egiten zutenak, hainbat...”

Amelia Barquin Mondragon Unibertsitatean, HUHEZIn hasi zen lanean 1999an, gaztelania erakusten. Joan deneko bederatzi urtean, berriaz, hizkuntza ez ezik Kultur Arteko Hezkuntza, Herriar-

tasunerako Hezkuntza eta beste, erakusten ditu. Bi ume dituzte, etorkinen portzentaje handia duen ikastetxean. “Bizi garen auzoak eskola bat du. Hura zen guretzat aukera naturala. Auzokoa, D ereduakoa, publikoa... Etorkinak joaten omen ziren. ‘Bai, eta zer?’, gure erantzuna, ez diogu horri beldurrik, ez dago zertan izan eta. Auzokoak joaten ziren eskola horretara, ez besterik. Oso gustura gaude, eta eskola ere aurrera doa. Klaustroa oso saiata da, metodologikoki oso aurreratu, hezkuntza estrategia puntakoak darabiltzate, dela bikote hezitzailea, proiektuen arabera irakaskuntza, aniztasunarekiko sentiberatasun handia... Aniztasuna altxor da ikastetxean. Oso eskola interesgarria da gaur egun, eta aniztasuna izan da berrikuntzarako akuilu”.

da hori ere. Baina, nola kudeatu da aniztasun hori? Ikasle batzuek eta besteek, ijitoek eta paioek, zer ikasi dute? Elkarrekin ezin dela bizi! Aberastasun izan zitekeen aniztasun hura, ez da hala gertatu, hein handi batean kudeaketa egokirik ez delako izan.

Immigrazioaren alderdi positiboak azpimarratu izan dituzu inoiz.

Bai, akuilu da eta metodologia arloan. Gela batzuetan aniztasuna areagotu da; adibidez ikasle berantiarrek agertu dira, delako eskolako curriculumaren berri izan ez dutenak... eta eskolak egoera horiek denak kudeatu behar ditu, era batera edo bestera, baina modurik egokienean beti. Metodologia tradizionalak ez du emaitza onik ematen aniztasunaren kudeaketan; berrikuntza peda-

gogikoari ekitea, berriaz, onuragarria da etorri berrientzat, baina baita beste guztientzat ere.

Etorkinen seme-alabek, Omarrek, Alexeik, Aminak... dakarkiguten kulturaz jabetzen ote gara?

Eskolak umeek etxetik dakarten kulturari zer harrera egiten dion ikusi behar. Ijitoekin gertatu zena. Zenbat irakaslek baliatu dute haiek zekarten kultura? Zenbatek eman diote prestigioa? Ijitoek sentitu zuten eskola hura ez zegokiela, eskolak berak ez ziolako ijitotasunari tarterik egiten. Horrek zer ikasia eman behar digu. “Ikasketa esanguratsua” esaten da orain, alegia, ikasleak sentitu behar du ikasten duenak zentzua duela eguneroko bizimoduan, haien bizipen, esperientzia eta interesekin lotzen dela. Gure kasuan,

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure!
artean!
euskaraz



BFA
DFB



“Ume etorkinei integrazioa eskatzen diegu. Eta nola egin behar dute? Ez badituzte indigenak ezagutzen, ez badira haiekin harremanetan sartzten nola integratu? Eta A ereduko eskola publikoan nekez gertatuko da hori, autoktono gutxik nahi dutelako hara joan.

etorkinen seme-alaben bizipen, esperientzia eta interesak esplizitatu behar dira ikasgelan. Baliabide ezin hobeak izango dira ikasle guztiek ikaskuntza berriak egiteko. Ez dugu ahaztu behar, bestalde, bertako kultura ume etorri berrien kultura ere badela; hemen hazten eta hezten ari dira eta hemengo guztia haiena da, eta berdin da non jaio diren haiek edo haien familiak.

Immigrazio berriak hezkuntzara ekarri duen aldaketaz ariko ginatke hizketan etorkinak behartsu, pobre ez balira?

Ez dut uste. Arrazakeriaz hitz egiten da, baina egokiago da Adela Cortinak asmatutako terminoa: aporofobia. Etorkinak ez ditugu gustuko, baina ez kanpotik datoze-lako, pobre direlako baizik, langile klaseak. Erdi mailako herritarrek maila bereko edo goragoko lagunak nahi ditu bere seme-alabentzat. Alemaniako kontsularen edo Baskonia-ko jokalariairene seme-alabak gure ikastetxera etorriko balira, arazorik ez legoke. Arazoa sukaldari txinatarren umea da, edo eraikuntzan ari den marokoarrarena. Behartsuak direlako, alegia. Elitismo puntu bat dago hor: “Nor eta nor dira gure seme-alabaren lagunak? Nor eta nor gonbidatu ditu urtebetetze festara?

Zein sare sozial izango du etorkizunean?”. Elitismoa, alegia. Hala ere, gai hauetaz ez da hitz egin ohi. Hezkuntza kalitateaz hitz egiten da.

“Etorkinen gurasoei esan egin behar zaie ezinezko dela haien seme-alabek gaztelaniaz ez ikastea Gasteiz batean adibidez, nahiz eta eskola euskaraz izan”

Aporofobiaz ez?

Ez, ez! Ez da gauza ederra. Nork hitz egingo du, bada, horretaz? Kontuok ez dira esplizitatzen. Nork esango du, bada, “halakorekin bai, gizarte maila berekoa dudalako. Halakorekin ez, pobrea delako, eskulangilea delako”. Pentsatu bai, pentsatuko dugu, modu inkontzientean bada ere. Esan ez. Hezkuntza kalitatea, ikasketa maila... gisako arrazoiak bai, besterik ez.

Immigrazio berriak gure erronkak agerian jartzen dituela irakurria dizut han edo hemen. Zein gizarte mota nahi dugun, euskararen normalizazioa, gure gizartearen balioak...

Bai. Etorkinak ez du arazo berririk ekarri euskararen auzira. Gasteizen, Bilbon... etorri berria zein eredutan matrikulatu zailentzen baldin baditugu, geuk ditugu dudak, ez etorkinak. Zailentza horrek gure gizartearen egoera erakusten du, ez besterik. Etorkinaren etorrerak nabarmenago egiten du euskararen egoera normalizatu gabea, eta egin-kizun dugun bidea. Arazoa ez dira haiek, etorkinek arazoa agerian uzten dute. “Gatazka” dakartela diote batzuek. Guk badakigu zer den gatazka, etorkinak azaldu baino lehen ere! Balioak... Zein balio lantzen ditugu familian? Esan, gauza asko esaten dugu. Egin, beti da zailago. Sahararrei elkartasuna adieraztea da bat, edo Boliviako eskola batera liburuak eta jostailuak bidaltzea, eta bestea da norberaren umeak ikasten ari diren ikastetxean sahararrak, boliviarrak hartzea, eta haiekin bat egitea. Elkartasuna, urrun dauden herritarrekin soilik? Ondora datozkigunean, norberaren umeak haiengandik urrunarazi? Zergatik, zein dira gure beldurrak? Horrek zer pentsatu handia eman izan dit. Zein balioen arabera eraiki nahi dugun gure gizartea, alegia. ■

Hexagonoan, Akitanian eta Iparraldean PS lehen indarra

Abstentzioa nagusitu da Frantziako lehen itzuliko eskualdeetako hauteskundeetan. Alderdien artean PS izan da lehen indarra estatuan. Akitanian eta Iparraldean ere Alain Rousset-en hautagaitza izan da garaile. Iparraldean EAJ-PNBk boz kopuru polita bildu du, aldiz, EH Baik ez horrenbeste. Baterak antolatutako herri galdeketa oihartzuna ukan du.

MIKEL ASURMENDI

ABSTENTZIOA izan da (hautesleen %53,50) Frantziako eskualdeetako bozetan nagusi. Gainerakoan, PS izan da (bozen %29,50) alderdi garailea Nicolas Sarkozy-ren UMPren (%27) aldean. Europe Ecologie (%12,5) emaitza moderatuak lortu ditu. Jean-Marie Le Pen-en Front National-ek (%12) igoera nabarmena izan du UMPren kaltetan. Alderdi sozialista (PS) da bigarren itzulirako (martxoaren 21ean) faboritua. PSk, Europe Ecologie eta komunistek osatutako fronteak (FGk %6,20 lortu ditu) aurre egin behar die UMPren inguruan bilduko diren zentro-eskuineko indarrei. Oraindik ere Kontseilu Nagusietako 26 presidentek izendatzeko daude.

Akitaniako Kontseilua

Alain Rousset-ek presidente kargua berrituko du ia-ia ziur Akitanian. PSk bozen %37,63 lortu du. UMPko Xavier Darcos izan da galtzaile. Lan ministroak bozen %22,05 besterik ez du erdietsi. MoDem-eko Jean Lassalleren karismak bere alderdia salbatu du. Bozen %10,43 bildu du. Europe Ecologieko Monique De Marco izan da beste galtzaile bat (%9,75). Izan ere, bigarren itzulian lehiatzeko behar diren bozen %10 ez baitu erdietsi. Bigarren itzulirako negoziatioak oso estuak izanen dira. Xavier Darcos hautagaiak PS, Europe Ecologie eta FGren arteko diferentziak gaindiezinak direla dio. Aldiz, UMPren eta MoDem-en arteko akordioa gauzatzea aski erraz ikusten du. Akitaniako hala

nola Estatuko gainontzeko 25 eskualdeetan alderdien arteko negoziatio mahaia zabalik daude. Bozkatzera joan ez diren hautesleen %50,44 dute jo muga alderdiek.

Ipar Euskal Herrian

Ipar Euskal Herriko hautesleen erdia baino gehiagok ez du boza eman bozen lehen itzulian. PSko Alain Rousset-ek bozen %32,71 erdietsi du. LGV azpiegituran (Abiadura Handiko Trenbidea) daukan jarrerak ez du PSren emaitzetan eraginik izan, Monique De Marco-ren kaltetan betiere. UMPk porrot historikoa jaso du Iparral-

dean, bozen %19,81 lortu du. MoDem hobeto aterata da bozen %17,66rekin. Jean Lassallen eragina agerikoa da ere hemen. EAJ-PNBko Jean Tellecheak eman du ustekabe esanguratsua. 6.000 boz erdietsi ditu. EH Baik, berriz, protestako 4.000 boz baliogabe erdietsi du. Irakurketa franko egin daitezke emaitza hauen inguruan. Nork bere interesekoak, bistan da. Deigarria da halaber Olivier Besancenot-en Alderdi Antikapitalista Berriak (NPA) Iparraldean nahiz Estatuan hautesleen artean izan duen interes eskasa.

Batera: herri galdeketa

Batera plataformak 28.233 jende hurbildu du herri galdeketa boz ematera. Herritar horien %78k instituzio bereziaren alde egin du. %19k berriz aurka. %3k zuri bozkatu du. Azpimarragarria da Baionan hautesleen %10k bozkatu izana.

Bi irakurketa finitzeko. Bat: Batera plataformaren ekimenaren inguruan mobilizatu diren boz emaileak eta alderdi abertzaleen inguruan mobilizatu direnak, kopuruz eta interesez ez dira berdinak.

Bi: Estatuko bozetan inoizko abstentzioa izan da. Alta, hauteskunde hauek ez dira, esaterako, Europako Parlamenturako hauteskundeak. Hots, teoriaren herriarrendak hurbilen dauden instituzioetarako bozak dira. Zerk egiten du huts? Hutsak huts, hautesleen mobilizazioan hedabideen eragina itzela da. Bigarren itzuliko parte-hartzeak erakutsiko du hedabideen eraginaren heina. ■



Hautesleen erdia baino gehiago ez da bozkatzera joan.

PENTSIOAK

Banketxeak gizentzeko erreformak mahai gainean

Martxoan mobilizazioak egin dituzte Hego Euskal Herrian diharduten sindikatuek, eta batez ere gehiengo sindikal abertzaleak, Espainiako Gobernuak egin nahi duen pentsio eta lan erreformari kontra egiteko. Gobernuak ematen dituen pausoen arabera, greba orokorra deitzea iragar liteke.

DANIEL UDALAITZ



LANDER Fdz. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

Sindikalgintza abertzalearen oinarrietan, greba orokorraren aldeko giroa sortzen ari da. Horretan lagundu dute martxoan egin diren mobilizazioek, tartean martxoaren 2ko hau.

GOGOAN dugu garai honetan eta egungo egoeran, iazko maiatzaren 21ean egin zen greba orokorra. Krisi ekonomikoaren erdian deitu zuen Hego Euskal Herriko gehiengo sindikal abertzaleak (ELA, LAB, ESK, STEE EILAS, EHNE e HIRU), eta babes handia lortu zuen langile eta herritarren artean. Eta berau gogoa dugu, garai hartan kalera ateratzeko arrazoirik egon bazen, orain, are arrazoi handiagoak daudelako, kontuan hartzen badugu mahai gainean direla Espainiako Gobernuak patronalaren eta CCOO eta UGT

sindikatuaren laguntzarekin planteatu nahi dituen lan erreformarako eta pentsioetarako neurri zehatzagoak.

Sindikalgintza abertzalearen oinarrietan, greba orokorraren aldeko giroa sortzen ari da. Horretan lagundu dute, batetik, martxoan egin diren mobilizazioek: sindikatuetako delegatuen mobilizazioak martxoaren 2an, emakume langilearen nazioarteko eguneko mobilizazioak martxoaren 8an, eta lehen fase honi bukaera emanaz, martxoaren 27an Hegoaldeko lau hiriburuetan egingo diren manifestazioak.

Tarte horretan egin dituzte CCOO eta UGT sindikatuek ere euren mobilizazioak, bakoitzak bere aldetik, Euskal Herriko hainbat herritan eta Espainiako Estatuan. Ez dirudi ordea, CCOO eta UGT sindikatuak, patronalarekin eta Espainiako Gobernuarekin negoziatzen dutenak, greba orokorra planteatzera iritsiko direnik.

“Krisia ordaindu dezala eragin zuenak”

Gehiengo sindikal abertzalearentzat, krisi ekonomikoak baditu eran-

Pentsio eta lan erreformen klabeak

SINDIKATU, PATRONAL eta alderdi politikoek asko kritikatu dituzte Espainiako Gobernuak proposaturiko erreformak. Baina ez edukiagatik, horretan nahiko ados baitaude denak, iritzi publikora zabaldu direlako baizik, diskrezioz eta Toledoko Paktuaren arabera eraman beharrean —paktu horretan gobernuak, sindikatuak eta patronalak negoziatzen dute—.

Gobernua erretiro adina 67 urtera atzeratu nahian dabil, eta pixkanaka aplikatuko litzateke erabaki hori, 2013tik aurrera: urtero bi hilabete atzeratuko litzateke erretiro adina, 67 urtera iritsi arte. Egun, jubilazio adina 65 urtekoa da, nahiz eta 2008tik posible den, borondatez, lan garaia 70 urtera

arte atzeratzea: egiten duenak, pentsioan %2ko igoera jasotzen du gehiago lan eginiko urte bakoitzeko. Pentsio bat jasotzeko 15 urtez kotizatu beharra dago, eta %100 kobratzeko, 35 urtez. Pentsioa kalkulatzeko erabiltzen den formulak kontuan hartzen du, baita ere, oinarritzko kotizazioa (azken 15 urteen oinarria). Espainiako Gobernuak epe hori handitu nahi du, eta beraz, azken hamabost urteak kontatu beharrean

Lan bizieta osoko kotizazioa, edo azken 20-25 urtetakoa kontuan hartzea planteatzen ari dira

—normalean gehien kobratzen eta kotizatzen diren urteak dira—, lan bizieta osoko kotizazioa, edo azken 20-25 urtetakoa kontatuko lirateke. Bestalde, aurrejubilazioak 58 urtetik gerora egitea nahi dute. Orain arte 52 urtetik aurrera egiten dira.

Lan erreformarekin, Gobernuak nahi du kontratuak egonkorragoak izatea, egungo prekarietatearen orde. Horretarako proposatuko luke kaleratzearen kostua merkatzeari, lan egindako urteko 45 egunetik, 33 egunera. Era berean, lanaldi murrizketa ordainduak gehitu nahi ditu, denbora bat formazioari eskaintzeko.

Patronala, bere aldetik, zabor kontratu berrien bila dabil.

tzuleak: bankariak eta patronala. Horiek dira, sindikatuon hitzetan, krisiaren ondorioak ordaindu behar dituztenak, eta ez langile eta herritarrek. Eta orain berriz, Espainiako Gobernuak saiatzen ari da krisiaren aurkako errezetak mahai gainera ateratzen. Baina errezeta hauek,

Espainiako Gobernuak planteatutako errezetak, honakoek inposatutakoak dira: Banketxeek, Europar Batasunak, patronalak...

honakoek inposatutakoak dira: Banketxeek, Nazioarteko Diru Funtsak, Munduko Bankuak, Europar Batasunak, Espainiako Bankuak eta patronalak.

Errezeta horietako bat da pentsioen erreforma, zeinak bi urtez atzeratu nahi duen erretiroa hartzeko adina (67 urtera arte) eta gehitu

egin nahi dituen erretiro saria jasotzeko kotizatu beharreko urteak. Beste errezeta bat da lan erreforma, kaleratzeak merkeagotuz. Errezeta horiek langileen kontrakoak dira, eta gizartearen kontrakoak, sindikatuen begitan.

Testuinguru honetan, gehiengo sindikal abertzaleak nabarmentzen du, indar osoa duela krisiaren kontra eginiko Dekalogoak. Dekalogo hori 132.000 euskal langilek sinatu dute. Enplegua mantentzearen alde egiten du, kaleratzearen aurrean, baita iruzurra ezabatzearen alde ere, eta kontratazio garaian diskriminazioa ezabatzearen alde, gizarte prestazio handiagoen alde, eta txirotasun mugatik gora egongo den soldataren alde. Era berean, gizartea babesteko sistema propioa eskatzen du Dekalogoak.

Bankuaren esanetara

Sindikatu abertzaleentzat, pentsioen erreformak ez du beste helbururik,

bankuen interesen zerbitzura aritzea baino, pentsioak pribatizatuz. ELAko idazkari nagusiak salatu duenez, “Zapaterok Botinentzat egiten du lan, bankuentzat, pentsioen gaian, pribatizatzea baita kontua, Bankuari fondoak emateko”. Patronala, bere aldetik, lan baldintzen kontra egin nahian ari da. LABeko

Krisiaren kontrako Dekalogoak 132.000 euskal langilek sinatu dute; honek enplegua mantentzearen alde egiten du

idazkari nagusiak adierazi duenez, “erreformak errezeta zaharrekin egin nahi dira, eta ez dira eraginkorrak langileentzat. Erretiroa atzeratzen saiatzen dira, kaleratzea merketzen, pertsonala murrizten, malgutasuna areagotzen...”. ■

Babeslea: Gaindegia



Euskal Herria, garapen jasangarriko unitatea
Euskal Herria Europako Batasuneko hego-mendebaldeko nazioa

Eragile ekonomiko eta sozialen sarea
 Zatoz zu ere, EGIN ZAITEZ BAZKIDE. www.gaindegia.org

Gaindegia, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
gaindegia@gaindegia.org • 943 304 365



Gaindegia, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
 Organismoa sortu eta zuzenduta: Euzko Legebiltzarrak. Euzko Legebiltzarrak
 Garapenerako politikak garatzen ditu. Euzko Legebiltzarrak ekonomia eta gizarte garapenerako behategia da.

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

“Pasapalabra” euskaraz

JAKIN NAHIKO NUKE *Pasapalabra* telebista saioari begira zenbat kateatu garen, eta batik bat joan den asteen, jakinda Laura Gonzalo gazte ikaragarri azkarrak errokoa osorik egingo zuela. Batek baino gehiagok galdetuko zion bere buruari ea nola moldatuko ginatekeen letra festa birila gaztelaniaz beharren euskaraz balitz. Oraingo ez daukagu telebista programarik (*Mibiluzerako* primerakoa litzateke), baina Maite Goñik Interneten jakinarazi digu hasi dela euskarazko errokoak egiten. Hiru mailatako sei ale prestatu ditu eta berriak egin ahala *Gaurko Hitz*a eta *euskaljakintza* blogetan jarriko ditu.

Asturiera Administrazioan

ASTURIERA SUSTATZEKO LEGEARI helegitea jarria zioten Espainiako Epaitegi Konstituzionalean. Helegiteak eskatzen zuen administrazioan, dokumentu ofizialetan, herritarreko harremanean asturiera erabiltzeko aukerarik ez izatea. Epaitegiak ordea, atzera bota du helegitea, eta beraz, asturiarrek administrazioarekiko harreman idatzietan asturiera erabili ahal izango dute.

30 urte euskaraz EHUn

DUELA 30 URTE BAINO LEHEN ikasgaiak euskaraz eskaintzen ziren

Euskal Herriko Unibertsitatean, baina justu duela 30 urte lortu zen ikasturte oso bat euskaraz eskaintzea. Lehen aukera hura 1979-1980 ikasturtean izan zen eta hainbat irakaslek bultzatu zituzten euskarazko eskolak. EHUK irakasle horiek omendu ditu duela gutxi.

BAHEA

Beñat Oihartzabalek *Berrian* esanak: “Euskara etxetik ikasi zutenek ergatiboa normaliki baliatzen zuten, eta besteek, eskolan ikasi zutenek, ez zuten berdin menderatzen. Euskarak Europako panoraman nortasun linguistiko azkarra du, eta ezaugarrietako bat da hizkuntza ergatiboa izatea. Garai hartan erraten zen ergatiboa beharrezkoa zelako egon zela, bestenaz gauzak ez zirela argi. Hori ez da hala, elkarren artean haurrek ez zuten komunikatzeko trabarik”.

martinezola erabiltzaileak *Tirakan* esanak: “Euskal Herrian, linboan gabiltza oraindik. Adeitasuna, progresibotasuna, gaizki ulertutako kortesia-sumisoa... eta orain elebitasun pasiboa. Sakon aztertze gaia da elebitasun pasiboarena, eta berri-berria ere ez, guk geuk ere sesquilinguismo izen ponpoxoarekin aspaldian aipatu baikenuen hementxe [*Tirakan*].

Niri neuri oso estrategia egokia iruditzen zait. Areago, estrategia bakarra da. Baina esan beharra daukat horretarako ezinbesteko baldintza euskaldun aktiboak egotea dela, alegia, beste horien euskalduntasun pasiboa aktibatuko duten euskaldunak egotea. (...)

Ni Administrazioetik ari naiz. Eta sentitzen dut, baina elebitasun pasiboaren predikatzaileak berak aktiboki exenplua ematen ikusten ez ditudan arte, utzidazue sinesgogor xamarra izaten”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Banku eta enpresa erreforma

Banku eta enpresa handien batzar orokorrak 2009ko emailtzak azaltzen ari dira. Joan den asteburuan BBVAk egin zuen berea Bilbon, 4.210 milioi euro garbi irabazi ditu. Laster gauza bera egingo du Iberdrolak Bilbon, honek 2.824 milioi euro irabazi ditu. Bilbon jaiotako bi enpresa horiek exekutibo handiek jasotzen dituzten soldaten adierazle dira. Euskal Herrian zein Espainiako Estatuan gehien ordaindutako exekutiboa Ignacio Sánchez Galán da, Iberdrolako presidentea. Iaz zortzi milioi euro baino gehiagoko sarrerak izan zituen. Soldataren bidez 5,34 milioi euro jaso ditu eta 3,05 euro helburuak lortzeagatik gratifikazioetatik. Francisco González BBVAko presidentea dago bigarren tokian. Iaz zortzi milioi euro jaso zituen, 5,3 milioi euro soldatan eta 2,8 akziotan. Gonzálezek bestalde, 80 milioi euro pilatu ditu jubilatzen denerako. Ibexeko 31 enpresetako kontseilarien soldatek 278 milioi euro baino gehiago osatu zituzten iaz eta goi zuzendaritzako kideen artean 314 milioi euro banatu zituzten.

Jasaten ari garen krisi garaian datu horiek iraina dira gizartearentzat, eta are gehiago, banka handia herritar guztion zergen bidez porrotetik libratu behar izan denean. Orain, arduradun eta kudeatzaile horiek gobernuari eskatzen ari dira lan erreforma gogorra egiteko, alegia, soldatak murrizteko, kaleratzeak merketzeko, jubilatze adina luzatzeko... Gobernuak nazionalizazioaren alde egiten ez dutenez, hobe lukete enpresa eta banka erreforma sakona egitea eta ezabatzea soldata lotsagarri horiek, haborokinak, kalte-ordainak eta milioika eurotako pentsioak. Eta desagerarazi ditzatela paradisu fiskalak, horietako askok milioika eurotako zorroak hor gizentzen baitituzte.

Juan Mari Arregi

Ilungune eta hutsune gehiegi

JON ANZA-REN desagerpena salatu zen lehen egunetan, gertaera gerra zikinari egotzi zitzaion euskal gizarteko esparru zabaletan. Historiaren itzalak ematen zuen halakorik irudikatzeko. Bere agerpenaren albisteak eta kasuaz emandako azalpenak, bertsio ofizialen putzu sakon eta ilunera garamatza. Gertaerak eta zalantzak argitzera baino, gerra zikinaren itzala indartzera datorrela dirudi. Bai, arrazoia eta egiaren izenean, zantzu eta susmo txarrak frogatu arte ezin dela hipotesirik baztertu eta akusazioekin tentuz ibili behar dela, baina....

Ilunguneak hain indartsuak dira eta emandako argiak hain ahulak! Bertsio ofizialak "akats burokratikoekin" bete ditu hutsune handienetakoak, eta, hala ere, Baionako Anne Kayanakis prokuradoreak argitu beharreko ugari dagoela aitortu du. Hara zalantzetako ugariak:

- Anza maiatzaren 11n hil zenean Tolosako Ranguel ospitalean zergatik ez zitzaion horren berri eman poliziari, identifikatu gabeko bat hiltzean legeak agintzen duen moduan?

- Gero hiri bereko Purpan ospitaleko gorputegira eraman zutenean ere ez zitzaion berri eman poliziari? Bigarrengoz akats burokratikoa?



- Eta ekainaren 4an Purpan-eko zuzendariak han ez zela identifikazio gabekorik adierazi zion prokuradoreari.

- Bat-batean, duela egun gutxi batzuk *Liberation* irakurtzen ari den gorputegiko langileak Anzaren ezagutza litzukeen pertsona Purpanen dagoela jakinarazten dio bere lagun poliziari eta honek pizten du alarma.

Noiz eta gorputegian 10 hilabete daramanean.

- Gorpua 2009ko apirilaren 29an Tolosako kaleetan topatu zutenean, 500 euro zituela zioen gertaeren aktak, baina ez Baiona-Tolosa joan-etorriko txartelak ere bazituela. Pista klabea, ia urtebete gorputegian, baina hau ere oharkabea.

- Eta ilungunerik handiena: zer gertatu zen Baionatik atera zen 18tik eta Tolosan topatu zuteneko 28ra arte?

- Nola jakin izan da 300.000 euro zeramala ETarentzat, honek bere agirian halakorik adierazi ez bazuen? Bide batez, Alfredo Perez Rubalcaba Espainiako barne ministroak iradokitako hipotesia baztertu da, hau da, Anzak diruarekin ihes egin izana.

- Espainiako Segurtasun indarrek bazekiten Anza etakidea zela, 2008ko azaroan Senperen aurkitutako ETaren zulo batean bere hatz-markak topatu baitzituzten.

- Joan den astelehenean jakinarazi zuen *El Mundok*, Antonio Rubio kazetariaren eskutik, Anzaren familiak bere desagerpenaren salaketa jarri zuen egun berean guardia zibil talde batek arrapaladan egin zuela alde Tolosako Adagio apartahoteletik, eta gela bateko ohearen koltxoipean bi pistola ahaztu zituztela.

Zalantza eta ilun-gune gehiegi eta halakoetan susmoek euren bidea egiten dute. Aurrekarien indarra ere ez da txantxetako: Joxe Arregi, Lasabala, Mikel Zabala, Xabier Kalpar-soro *Anuk*, Jose Luis Geresta, Josu Zabala *Basajaun*, Eduardo Moreno Bergaretxe *Pertur*, Popo Larre, Jose Miguel Etxeberria *Naparra*... "Arazo burokratikoetatik" harago Frantziako justiziak badu lana.

Udaletako euskara-zerbitzuen II. topaketak

2010eko apirilaren 21ean eta 22an
Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

Gaia: Nerabeen aisia eta lagunartea: zer eta nola egin daiteke udaletatik nerabeek aisia eta lagunartean euskara gehiago erabiltzeko?

matrikulazioak online martxoaren 22ra bitartean - **PLAZA MUGATUAK**
www.udaltop.com

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Regis Debray, Villepin eta Haitiren 21.000 milioiak

Claude Ribbe idazle frantsesak azaldu berri du Frantziak lagundu ziela AEBei 2004an Haitin gehiengo zabalak hautaturik agintean zegoen Jean-Bertrand Aristide eraisten. Dominique de Villepin lehen ministro frantsesaren arrebak eta Regis Debray famatuak burutu omen zuten operazioa.

FIKZIOZKO LITERATURA LETZERIK ez du merezi, Claude Ribbek eskaini kronika bezalakoak edukiz gero. Gaztelanahiz frantsesaz eskaintzen du *Voltaire Net* gunek. Titulua du kronikak akats bakar: “Che Guevararen heriotza: lekukotasuna eta gogoetak. Haiti eta Bolivia. Regis Debray frantsesa, sasi-iraultzailea eta funtsean inteligentzi zerbitzuen sator informazio emaila”.

Panfletu merkearen usaina erantsi dio izenburuaren hautatzaileak, baina artikulua lehen esaldia irakurtzera ausartu denak ez du bake onik izango 36 folioak irentsi arte: “2004an Frantzia AEBekin adiskidetu zen Haitiko presidente Jean-Bertrand Aristide-ren eraisketan parte hartuz”. Regis Debray adina Haitiz eta Frantziaren kolonialismo ezin amaituaz da papera.

Claude Ribbe historiagile, filosofo eta idazle frantsesa da, 1954an Guadalupe uhartean sortua. Arraza beltzekoa, idazlanik ezagunenak ditu beste frantses beltzei buruzkoak, Iraultza garaian militar garrantzi handikoa izatera iritsi zen Chevalier de Saint George eta Alexandre Dumas idazle famatuaren aita Dumas general beltza aztertu ditu. Bestalde, azken urteotan jakobino berriek Frantzia hainbeste laudoriatzen duten Napoleon Bonaparteren kontra zorrotz aritu izan da

Ribbe, korsikarraren beste krimen ugarien artean nabarmenduz Haitiko beltzen kontrako genozidioa.

Kolonialistek antzinako esklaboen ondorengoei oraindik kitatzeko dauzkaten zorren aldarrikapena egin du sarritan Ribbek, mundu frankofonoan oihartzun handia lortu duten liburuekin. 2002an kanpainan sartuta zegoen, 2004an Haitiren independentziaren bigarren mendeurrena Amerikan adina Frantzia duintasunez ospatu zedin. Hor egin zuen Ribbek topo Regis Debrayekin.

Irakurle zaharrenek memoriari eragin beharko dio sorbalda gaine-ko ganbaran Debrayren irudia aurkitzeko. Interneteko irudien artean egin lezake bilaketa, eta Debray idazle gaztea azalduko zaio 1968ko argazki zaharretan Boliviako polizia eta militarrez inguratuta.

Che Guevara eta haren gerrillarekin ibilia zen sasia aste batzuetan eta Europarako bidean arrestatu zuten. Egun gutxiren buruan hilko zuten Guevara. Denbora pasata, Debray indultatu zuen Boliviako Gobernuak eta hark Europa itzuli munduari esplikatuz zion zertan ari ziren Kubako iraultza Amerika osora esportatu nahi zuten iraultzaileak.

Jainkoak libra gaitzala Debray jurgatzeko tentaldituk. Guk ez ginen

han. Ribbek, ordea, oso zalantza gutxi dauka: ordurako zerbitzu sekretu frantsesekin ari zen intelektual sutsu hura eta Guevararekin ibili zenean agente bikoitzarenak egiten zituen. Ez du dudarik egiten Debrayk oihanetik ihes egiteko zeukan presagatik inguratu eta kalitu zutela boliviarrak. Baina hori guztia ez litzateke 68ko irakinaldi mitiko haiek sakon ezagutu zituztenen arteko zahar solasa besterik, baldin eta ez balu Ribbek Regis Debray topatu 2003an zertan eta Haitin Aristide agintetik kentzeko operazioa antolatzen.

‘Politesse’rik gabeko frantsesak

Duela zortzi urte AEB hasita zuden Aristide bigarren boteretik kentzeko konspiratzen, Collin Powell ministroa buru. Frantsesek berriz, interes bat baino gehiago zeukaten hauteskundeak sekulako abantailaz irabazitako presidente beltza kanporatzeko.

Funtsezkoena hau: munduan zabaltzen hasia zela Frantziak hai-tiarrei kalteordainak paga ziezakien eska, independentzia lortu eta esklabismoa eragotzi zutenean nozitutako zigorren ordainetan. Aristidek berak 21.000 milioi dolarretan kalkulatu zituen kalteak.

2003an Dominique de Villepin zegoen lehen ministro Parisen, eta

Ezkerreko irudian Jean Bertrand Aristide Haitiko presidentea Nazio Batuen Erakundeko biltzar batean hizlari. Gaur Hegoafrika bizi da, Johannesburgo unibertsitatean eskola emanez. Aristideren alderdi berekoa eta adiskidea den Rene Preval presidentea ez da ausartu hura berriro Haitira eramaten. Eskubian goian, elkarriketa egin zion Frantziako telebista publikoaren webgunetik hartutako argazkian, Regis Debray bere azken liburua *Fraternité* aurkezten. Hirugarren fotoan Claude Ribbe idazlea ageri da, Alphonse Jean-Paul Bertrand argialetxean sortu duen *Ethiopica* saila aurkezten. Historiako liburuez eta antzerkian aurkeztutako obrez gain, Ribbek lan garrantzizkoak plazaratu ditu arrazismoaz, Jean Paul Sartrek defendatu *negritude* auzitan jarritz.



gaiari aurre egiten hasteko intelektual talde bat osatzea agindu zuen, Frantziaren historia koloniala era goxoagoan berridazteko, horretarako liburuak, aldizkariak eta zernahi argitalpen plazaratzeko dirua jarrita. Nor jarriko horren buru eta Regis Debray gorri zahartua.

Besteren artean Claude Ribbengana joko du Parisko gobernuak. Ziurrenik helburu bikoitzarekin, ahal bada bere alde lanean jartzeko eta bestela kontra egonik ere kontrolpean edukitzeko. Mendebaldean agintariak askotan egiten dute, gai nagusien aurrean aditu batzordeak osatzean.

Intrigazko istorio beroa da Ribberena. Ikusi lehenik Parisen eta gero Haitin bertan, Port-au-Prin-

cen, Regis Debray, frantses enbaxadorea eta Dominique de Villepin ministroaren arreba Veronique (Albanel jeneralaren emaztea, eta beraz haren abizena daramana) Aristideren kontra konspiratzen. Pierre Claude Duvalier diktadore ohia ere bai itzaletik, 1986tik Frantzia ondo babestuta.

Tarte horretan, Ribbek izan zuen Jean-Bertrand Aristidek haren liburuetako bat irakurtzeko zortea, eta harremana piztu zen bien artean. Geroztik, 2004ko otsaileko estatu kolpea, zuzenago esateko, AEBen eta Frantziaren esku hartze lotsarik gabea, batzuek nola antolatzen zuten eta bestek ahal bezala nola oztopatzen ikusteko pribilegioa eduki du Ribbek.

Eszena gogoangarriak daude Ribberen kronikan. Bi aukeratzekotan, izugarria Port-au-Princen kanpo arazoetako ministroaren eta negoziatzera etorri diren frantsesen arteko bilkura baten kontakizuna: frantsesak sartu eta denak eseriko dira mahaian bi ez besteak, bi horiek zutik geratu dira eskua bularrean daukatela –357 Magnum pistola bana ukituz– ateak blokatuz. Mehatxu lotsagabeagorik...

Bestean kontatzen du 2003ko abenduaren 11n Villepinen arreba eta Regis Debray Aristideren jauregi nola iritsi ziren, harekin bakar ka egotea exijituz. Han eman zioten ultimatuma: edo alde egiten duzu edo atera egingo zaituzte. Mezu bera bidalia zion egun gutxi lehenago Collin Powellek: “Batzuetan hobe da norbera joatea eta ez zain geratzea ea nola ateratzen duten arrastaka helikopteroraino”.

Lau egun geroago hasi ziren istiluak Haitiko leku batzuetan, Dominikar Errepublikatik mertzenario bandak sartzen hasi ziren. Komunikabide handien laguntzarekin Aristideri ohorea asasinatu zioten, ondoren errazago kendu ahal izateko: ustelkeria, magia beltza...

2004ko urtarrilaren 1ean hasi ziren Haitiren independentzia ospatzeko festak. Mendebaldetik ia inor ez zen azaldu, ez zen ezagutu. Hegoafrikako Thabo Mbeki izan zen lehenbiziko esklabo herri askatuari ohore egin zion bakarretakoa. Berak hartu zuen etxean gero Aristide, hilko ez bazuten. Eta Claude Ribbe intelektual frantses beltza ez dago ez ahazteko, ez barkatzeko. ■





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
zinkunegi@euskalnet.net

zuri begira

Jose Ignazio Ansorena

Hermana Ixabel



Gure izeba Isabelita moja zen, mojatxoa hobe, hain zen txikitxoa. Astigarragan urte asko eman zituen eta *Hermana Ixabel* deitzen zioten bertakoek. Marrazki biziduna ematen zuen, xalaua, atsegina eta maitagarria. Beti edonori laguntzeko prest, bereziki behartsuenei. Kristauen jatorrizko goiburua ondo bereganatua zuen: ez inori kalterik egin eta, ahal baduzu –beti ere kontuz– lagundu.

Moja sartu berritan, bere amona, gure birramona, Jenerosa, komentura joan zitzaion bisitan. Amonak biziki maite zuen Isabelita eta gaizki zeraman biloba ikusi gabeko denbora. Bere laurogeita piku urtetan Mirakontxa gaine-ko komenturaino iristea nahikoa kostatu zitzaion. Isabel gazteak kontatu zion:

–Amona, joandako igandean, Artzain Onaren elizara joan ginen mezetara moja guztiak.

Amona, ondoan bizi zenez, harrituta:

–Zergatik ez zinen ba amonari bisita egitera etorri?

–Mojen arautegiak ez digu uzten.

–Amonari bisita egiten ez dizutela uzten? Zein jainko arrotza asmatu duzuen mojek.

Izeba Isabelitari hainbatetan entzun nion anekdota hau kontatzen eta azpimarratzen teologia ikasketa askok baino gehiago argitu zutela hitzok.

* * *

Parisko 1968ko maiatzeko altxamenduaren koordinada kulturaletan bizi gara oraindik nire adineko asko. Mendeetan zehar landutako kulturaren eskola kraskatu beharra agerian geratu zen garaitsu horretan. Eta gure belaunaldiak mundu berria eraiki behar zela sinestu zuen: libertatea ikur.

Gaur egungo belaunaldi emerjenteek libertatearen eza ez dute horren era lazgarrian sentitu. Ziurtasun psikologikoarena bai ordea. Mundua zurrumbilo kaleidoskopikoaren antzera agertu zaie eta helduleku sendoen beharra sentitu dute. Nahiago dute inozokierian erori, baina taldean, bakarka



DANI BLANCO

eguneroko konplexutasunaren geziei erantzun behar izatea baino.

Alde horretatik, elizako hierarkian –beste alor askotan bezala, galdetu bestela politikariei– bezero kopuru handia izatea inportanteena dela uste dutenak instalatu dira. Marketinaren legeak ondo ezagutzen dituztenak. Produktua alor bereko besteengandik argi eta garbi berezi behar da, ezaugarri nabarmen zehatzak behar ditu, dudarik ez du sortu behar, hainbatetan adikzioa sortzen badu hobe, *fans* elkarteak sortzea ere lagungarria izaten da... Jainkoaren salmentaz ari gara noski.

Jose Antonio Pagolaren *Jesus, hurbilketa historikoa* ez dago ezer saltzeko eginda. Fededunei eta ez dutenei, egungo azterketa berrien eta burutsuenen ildotik, aukera borobila ematen die Jesus nor izan zen ezagutzeko. Hurbilketa horretan maiz eliza ofizialak mendeetan zehar egindako desitxuratze hainbat ere bistan gertatzen dira. Jainko arrotz bat sortu dela maiz, alegia.

Pagolaren liburua berak eskuz sinatua daukat etxean. Ohore egin zidan: aurkezpen egunean txistu-danbolinez laguntzeko eskatu. Eta esker onez liburua erregalatu. Erregalia da, baina, irakurtzen duen ororentzat. “Fede heldu eta konprometitu” izateko bidea badela agerian uzten duelako. Inozokerietatik urruti.

* * *

Hermana Ixabel. Joandako abenduan hil zen, Euskal Herritik kanpo. Bezperan bisita egin nion. Eskutik heldurik elkarrekin abestu genituen bihotzez maite zituen abestiak: *Xagu txiki* (bera ere xagu txikia zela zioen), *Neskazaharrrak* (bera ere neskazaharra zela zioen), eta *Agur, Jesusen Ama* (bera ez zen ama izan, baina askorentzat bihotzeko maistra bai). Ahots hari fin bat besterik ez zitzaion gertatzen. Hurrengo goizean hil zen. Jesusen mezua hil arte mantendu zuen: ajeak, nekeak, gaixotasunak sufritu arren, bihotza ez zitzaion inoiz zimeldu. Ez zuen jainko arrotzentzako tarterik utzi. ■

Jose Antonio Pagolaren *Jesus, hurbilketa historikoa* ez dago ezer saltzeko eginda (...).


Hurbilketa horretan maiz eliza ofizialak

mendeetan zehar egindako desitxuratze

hainbat ere bistan gertatzen dira. Jainko

arrotz bat sortu dela maiz, alegia

ASTE HONETAKO zozketa



Iriarte Jauregia

Asteburu pasa
bi laguntzat

Eliz-Bailara 8
Bidegoian GIPUZKOA

www.iriartejauregia.com

1



Nafarroako Bertsolari Txapelketa

5 sarrera

Baratzeetako zeharkalea 2, behea
Iruñea NAFARROA

www.bertsozale.com

2



Amagoia í Etxekar

Diseinuzko lepoakoa
urrezko bainuarekin

Donibane kalea, 76 - 3º
Pasai Donibane, GIPUZKOA
La Bretxa Merkatal Gunea
goi solairua
Donostia, GIPUZKOA

www.amagoiaietxekar.com

3



Desira plazer 68-08


Txalaparta Argitaletxea

5 liburu opari

Navaz y Vides kalea 1
Tafalla NAFARROA

www.txalaparta.com

4



Barrence Whitfield eta Petti

4 CD opari

Soraluze GIPUZKOA

www.hotsak.com

5

AURREKO ASTEKO IRABAZLEAK

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Joseba Berriozabal Urkiza (Zumaia)
- Aitor Zuberogoitia Espilla (Bilbo)
- Alkizako Udal Liburutegia (Alkiza)
- Julen Gorostizaga Elu (Arrankudiaga)

INGURU ABENTURA

- Jose Garaizabal Aizpurua (Elorrio)
- Iraultza Urrutia Madariaga (Larrabetzu)
- Jabier Altzorritz Lardies (Bilbo)

CD SORTA GAZTELUPEKO HOTSAK

- Iruñezar AEK Euskaltegia (Iruñea)
- Lukas Etxeberria Sagastume (Gasteiz)

SAIAZ GETARIA HOTELA

- Mamen Uharte Azpiroztz (Leitza)

TXOMIN ETXANIZ TXAKOLINDEGIA

- Amasorrain Ikastola (Donostia)

ZERO ZABOR

Dena birziklatzeko eta batere zaborrik ez sortzeko
lanean dihardugu, ingurugiroa eta osasuna babeste aldera.

Zeroa da gure emaitzik onena, zero zabor.

Zeroa, orain, bikaina da.



www.sanmarko.net



sanmarko

zero bikaina